

ek!

eta kitto!
euskara elkarte

2022ko abenduak 2 · 1250 zenbakia

SORIONEKU EUSKARAREN EGUNA

T. Etxebarria, 1
943 20 42 99

Gehien
maite
duzuna
babestu!

BIZI ASEGURUA

Informazio gehiago:
eukisegueros.com

EUKi
ASEGURUAK
Gure familia beti
babestuta egongo
den **garantia**



osasun gida

Dentistak

arat.
ZURE IRIBARRE ONENA



Terrillo Etxeberria Kalea, 4
 20600 Eibar
 943 201 831
www.aratclinicadental.com

IRAZABAL
 clinica dental

Iribarreetan adituak
 ESPEZIALITATE GUZTIAK

Julian Etxeberria, 12 - 1. Esk.
 Tfnoa: 943 20 85 52
www.clinicainzabal.com

Fisioterapeutak

ANE MENDIA
 Fisioterapeuta

- MASAJE
- KINESIOTERAPIA
- FISIOTERAPIA
- KINESIOLOGIA
- FISIOTERAPIA

FISIOTERAPIA ZENTRUA

ARRAGUSTA, 2D
 Tlf: 943 53 56 42
ane_mendia@hotmail.com

Ginekologia

Dra. Laura Martínez  **Dr. Alejandro Recas**

GINECOLOGÍA EIBAR

- Ginekologia
- Obstetrizia
- Ekografia 3D / 4D

Tel: 659 56 13 65 San Juan, 5 - 2. D
dr.recas@gmail.com
dra.martinezgallardo@gmail.com
www.ginecologiaelbar.com

EIBAR HORTZ KLINIKA CLINICA DENTAL

Maitane G. Iñiguez
 Odontologian Lizentziatua

San Agustín Kalea, 4 beheko ezkerria
 20600 Eibar (Euzkadi)
 943 537 076 / 688 894 808
info@eibarclinicadental.com

MIGUEL SEMINARIO ZURIARRAIN ODONTOLOGOA

Odontologia orokorra
 Ortodontzia
 Implanteak

Bidebarrieta, 7-1. esk. 843-702888

Unzaga Plaza
 Hartz Klinika - Clinica Dental

Maite Orozco Ventura

Unzaga Plaza, 5-4, ezkerria Tel. 943 70 23 65

Pedro Etxeberria Gisasola DENTISTA

09.00etatik 13.00etara eta 15.00etatik 20.00etara
EGUNERO

Calbeton 19 - 3. erk. Tfnoa: 943 20 72 17

GASTESI
 Hartz-Klinika

Errebal, 9 - 1. C
 943 70 00 90 / 688 68 96 02

Odontologia orokorra eta prebentzioak / PADI
 Ortodontzia / Implanteak / Laser Teknologia



943-206776

Jarraitu gaitzazu!



@etakitto



etakitto.eus

Eguaztenean San Andres eguna ospatu genuen Eibarren. Azken egunetan jai giroa izan da nagusi herrian, eta hiru urteko etenari gogo handiagoarekin erantzun diete herritarrek. Goizean goizetik hasita jai usaina nabaritu zen herriko kaleetan.



ARGITARATZAILA

...eta kitto! Euskara Elkarte

HELBIDEA

Urkizu, 11 · 20600 Eibar

TELEFONOAK

943 20 67 76 / 943 20 09 18

603 598 285

FAXA 943 20 28 72

ASTEKARIAREN E-MAILAK

erredakzioa@etakitto.eus

komunikabideak@etakitto.eus

publizitatea@etakitto.eus

ELKARTEAREN E-MAILAK

elkarte@etakitto.eus

normalizazioa@etakitto.eus

ERREDAKZIO-KONTSEILUA

Ana Aizpurua, Ekhi Belar, Jose

Luis Gorostegi, Silbia Hernandez

eta Yanire Sagredo

ADMINISTRAZIOA

Marisol Uriarte

KOORDINATZAILEA

Ana Aizpurua

ERREDAKZIO-BURUA

Silbia Hernandez

DISEINUA

Maku Oruezabal

MAKETAZIOA

...eta kitto! astekaria

HIZKUNTZA ARDURA

Maider Aranberri

PUBLIZITATEA

Belen Ulazia

TELEFONOA

943 20 67 76

AZALEKO ARGAZKIA

Ekhi Belar

BANAKETA-ARDURA

Idoia Labado

TIRADA

7.800 ale

INPRIMATEGIA

GERTU koop. (Oñati)

COPYRIGHT-A

...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA

SS/430/92. ISSN: 1132 - 1679



("...eta kitto!" k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)

Eibarko Udalak eta
Gipuzkoako Foru Aldundiak
lagundutako aldizkaria



EIBARKO UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia

Eskutitzak



Pentsioak 2023rako aurrekontuen lege-proiektuan

Gobernuak 2023rako aurrekontuen lege-proiektua onartu du Kongresuan, babesa ematen dioten talde politikoekin. Proiektu horrek pentsioen balioa handitzea aurreikusten du, 2022ko urte arteko batez besteko inflazioaren arabera. Horrekin kotizaziopeko pentsioak, gutxieneko pentsioa barne, %8,5 inguru igoko dira, eta kotizaziopekoak ez diren pentsioen %15eko igoerari eutsiko zaio 2023an.

Finantza-sektore handien eta patronalaren kritikak gorabehera, aurrekontu horiek 2021eko abenduan onartutako lege baten arabera errebalorizazioari eutsi izanako pentsiodunen mugimenduak astelehenetako mobilizazioei eutsi izanari zor dio neurri handian, eta hori nahikoa arrazoi da gu zoriontzeko eta kalean jarraitzera animatzeko.

Hala ere, %8,5 inguruko igoera horrek Pentsiodunen Mugimenduarren 1.080 euroko aldarrikapenetik oso urrun dagoen gutxieneko pentsioetara garamatza, eta gutxieneko pentsioak hobetzea proposatzen duen 2020ko azaroko Toledoko Itunaren 5. Gomendioa ere ez du kontuan hartzen.

Jasaten dugun inflazio izugarria pentsiodun guztion poltsikoak zulatzen ari da, batez ere zenbateko txikiagoko ordainsariak jasotzen dituztenena. Gizarte Segurantzako eta INEko estatistika ofizialen arteko alderaketak argi erakusten du eroketa-saskiaren garestitzea askoz ere proportzio handiagoan hazten dela pentsioen batez besteko zenbatekoa igotzen dena baino.

Kongresuko hainbat talderekin bildu gara Euskal Herriko Pentsiodunen Mugimendua eta urriaren 15ean Madril-en manifestatu ginen Estatuko gainerako mugimendu eta plataformekin batera, aurrekontu horiek onartzea erraztu dutenekin, hain zuzen: ERC, EH-Bildu, BNG, Compromis, Unidas Podemos eta PSOE (EAJk adierazi zigun ezin zela bertaratu), 220.000 lagunek babestutako sinaduren dokumentuan jasotako premiazko aldarrikapenen berri emateko eta konpromiso zehatzak eskatzeko.

Gipuzkoako Pentsiodunok, berriz ere, nabarmendu eta eskertu nahi dugu astelehenero 58 hilabetez egiten ari garen ahalegin solidarioa. **Berdin dio nork gobernatu, guk pentsioak defendatu.**

Gipuzkoako Pentsiodunak

Astean esanak



Etorkizunean bi sasoi baino ez dugu izango, hori esaten digute ereduak. Temperatura ez-ezik, euriaren patroiak ere aldatzen ari dira. Orain dela 50 urtekoarekin alderatuta, ikusten ari gara udazkenean euri gehiago egiten duela neguan baino. Orduan ohikoa zen prezipitazio ugari izatea neguan eta ongi banatuak; orain, aldiz, udazkenean metatzen dira eta, maiz, egun gutxi batzuetan. Zaparrada mardulak gero eta ohikoagoak dira, baina euririk gabeko tarteak ere ugariagoak dira orain. Udako zaparradetan lurrunketa handia dago eta ura atmosferara itzultzen da berehala. Neguan, aldiz, zaparrada intentsu horiek uholdeak eragiten dituzte. Batean zein bestean, prezipitazio horiek ez dute asko laguntzen urtegien maila igotzen.

PEIO ORIA, fisikaria

Europar Luxenburgok bakarrik ekoizten du EAEk baino energia gutxiago / "Dorre eolikorik ez, plaka fotoboltai-koak bai", eta gure mendietan eguzki plaken osagai diren mineralak baleude... zer esango genuke? / Errekalorreko plaka batek edo Iberdrolaren beste batek txikiak bera eragiten du / Egungo mendizalatasuna metafora ona da; ez dugu inolaz ere eolikorik nahi mendietan, baina ehunka edo milaka kilometro egiten ditugu mendiar joateko / Ekologismoan historikoki ikuspegi kontserbazionista gailendu zaio begirada sozialari, baina parke eolikoekin ekonomia deskarbonizatu eta faktura merketzea lortuko bagenu? / Dorre eolikoan ikusgarritasunak gure identitate politiko ekologistetan deserosoegi sentiarazten gaitu; horrek ezta-baidaren gainontzeko ertz guztiak biziatu egiten ditu.

MIKEL GOMEZ, militante ekologista

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

ON EGIN → Mesede egin. "Ardau apur honek on egin desta".

ONIK EGIN EZ → Kalte egin. "Euzkixa larregi hartziak ez detsa onik egiñ".

ON EGIN DEIZULA → Jaten dagoenari kunplimenduz esaten zaiona.

"On egin deizuela danori! Bai zeuri be!".

1978

Eibarko artisten erakusketa

Eibarko Artisten Elkarte 1975. urtean eratu zen eta, harrezkerro, gure herriko artisten lana ezagutzera emateko lanean dihardu. Plazaolaren argazki honetan, udaletxe barruko patioan egindako erakusketan parte hartu zuten artistak, lan batzuekin batera, ageri dira.



Farmaziak

BARIXAKUA 2 EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)	ZAPATUA 10 EGUNEZ Castaño (J. Etxebarria, 7)
ZAPATUA 3 EGUNEZ Castaño (J. Etxebarria, 7)	DOMEKA 11 EGUNEZ Morgado (San Agustin, 3)
DOMEKA 4 EGUNEZ Lekunberri (Isasi, 31)	ASTELEHENA 12 EGUNEZ Castaño (J. Etxebarria, 7)
ASTELEHENA 5 EGUNEZ Barandela (Z. Agirre, 4)	MARTITZENA 13 EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)
MARTITZENA 6 EGUNEZ Elortza (J. Gisasola, 18)	EGUAZTENA 14 EGUNEZ Barandela (Z. Agirre, 4)
EGUAZTENA 7 EGUNEZ Elortza (J. Gisasola, 18)	EGUENA 15 EGUNEZ Lekunberri (Isasi, 31)
EGUENA 8 EGUNEZ Castaño (J. Etxebarria, 7)	BARIXAKUA 16 EGUNEZ Barandela (Z. Agirre, 4)
BARIXAKUA 9 EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)	GAUEZ BETI , 2022an, Mendinueta (Urkizu, 6)

Hildakoak

- **Carmen Bilbatua Sarasketa.** 2022-11-22.
- **Maria Angeles Suarez Perez.** 72 urte. 2022-11-25.
- **Juana Uribelarrea Andreu.** 81 urte. 2022-11-25.
- **Antonio Javier Zabala Gaztelurrutia.** 68 urte. 2022-11-27.

Telefono jakingarriak

SOS deiak	112
Pegora	010
Udaletxea	943 70 84 00
Portalea	943 70 84 39
Udaltzaingoa	943 20 15 25
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa	943 82 01 10
KIUB	943 20 38 43
Kirol Patronatoa	943 20 32 40
Epaitegia	943 03 34 00
Iberdrola	900 17 11 71
Naturgas	902 12 34 56
DYA Larrialdiak	943 46 46 22
Gurutze Gorria	943 22 22 22
Eibar Ospitalea	943 03 29 00
Mendaro ospitela	943 03 28 00
Anbulategia	943 03 25 00
Torrekuia	943 03 26 50
Errepideak	902 11 20 88
Ertzaintza	943 53 17 00
Eusko Tren	944 33 33 33
Lurraldebus	900 30 03 40
Pesa	900 12 14 00
Taxiak	943 20 30 71 / 943 20 13 25
Andretxea	943 70 08 28
Alkohol. Anon.	629 14 18 74
Al-Anon / Alateen	650 26 59 63
Grupo Egun Bat (Jokozale	
Anonimo eta Familiak)	699 37 75 20

Gogotsu ospatu ditugu sanandresak

Eibartarrak gogotsu geunden San Andres jaiak ospatzeko eta goizean goizetik igarri zen kalean piztu zen giroagatik. Dantza, musika, animaliak, azoka eta, gainera, eguraldia lagun, ezer ez zen falta izan San Andres egunean.

BIDEOAK







Txistorra Eguneko zozketetan saritutako zenbakiak kaleratu dituzte

Zapatuan ospatutako XVIII. Txistorra Egunaren amaieran egindako zozketan, honakoak izan ziren saritutako zenbakiak: 763 (lehen sari nagusia); 91, 242, 408, 416 eta 466 (tarteko helmuga sariak); 912, 163, 1025, 296, 1333, 60, 611, 596, 45, 917, 687, 1124, 103, 897, 1359, 735, 940, 732, 295, 57, 612, 350 eta 451 (sari bereziak); 18 (lehen erreserba); eta 1119 (bigarren erreserba). Sariak jasotzeko Eibarko Txirriindulari Elkartera (Pagaegi, 3) joan daiteke, hilaren 12tik 15era, 19:00etatik 20:00etara. Bestalde, erreserba izatea egokitu zaienei,

kontakturako datuak ematea eskatu dute, elkartera joanda edo, bestela, clubciclistaebarras@gmail.com helbidera idatzita.

Horrez gain, Txistorra Eguneko babesleetako bat den **Kia Naia Car**ek egindako zozketan, 60 euroko Oparitu Eibar txartelarekin saritu dituzte Gorka Astola (38. zenbakia), Ander Treviño (18.a), Minerva Lopez (206.a), Leire Corta (106.a), Pedro Mari Alberdi (200.a) eta Zuriñe Fernandez (145.a). Txartela prest egotean, abenduaren 12tik aurrera ipiniko dira beraiekin kontaktuan arduradunak.



Zuhaitzak jantzi zituzten indarkeria matxisten kontrako egunean

Indarkeria Matxisten Kontrako Eguna dela eta, Untzagako zuhaitzak puntu-lanekin jantzi zituzten barixakuan, “Indarkeria Matxisten Aurkako Matazak Ehunten” ekimenarekin bat eginez. Berdintasun Zerbitzua-Andretxeak deituta, eguerdian elkarretaratzea egin zen Untzagan, eta arratsaldean indarkeria matxisten kontrako manifestazioa, Matraka eta Nalua taldeek deituta.



Pintxo onenak, Hirurok eta Belekok aurkeztutakoak

Hirurok tabernaren “Ay qué bueno” pintxoak sari bikoitza jaso du Arrate Kultur Elkarteak antolatutako XVIII. Eibarko Pintxo Lehiaketan: pintxo onenaren saria, “egindako errezeten konbinazio eta lortutako zaporeen orekatik” eta publikoaren saria, bozka gehien jaso du eta. Bertako produktuekin egindako pintxo onenari saria, berriz, Beleko tabernak eraman du, “Kakuni Matata” izeneko pintxoarekin,



1955. urtean jaiotakoak

Argazkian ikusten dituzuenak aurten 67 urte betetzen dituzten eibartarrak dira eta, beste askok bezala, primeran ospatu zuten, zapatuan egindako bazkarian.



Garbigunearen ordutegia aldatu dute eta zapatu goizez ere zabalduko da

Debarrena eskualdeko Man-komunitatearen ardurapean, Azitainen dagoen garbigunearen ordutegia aldatu egin dute: aurrerantzean gune hori astelehen goizetan itxiko da eta, aldiz, zapatu goizetan zabalduko dute. Atzo sartu zen indarrean ordutegi berria eta, beraz, aurrerantzean horri jarraituta zabalduko dituzte instalazioak. Hau da ordutegi berria: astelehenetan, 15:45etik 18:15era; martitzenetik barixakura, 09:00etatik 13:00era eta 15:45etik 18:15era; eta zapatuan 09:00etatik 13:00era.



Udalak 1.750.000 euro erabiliko ditu baserrietarako bide eta pistak hobetzeko

Gure herriko baserrietarako bideak hobetzeko 1.750.000 euroko aurrekontu-partida esleitu du. Kopurua hurrengo bost ekitaldietarako izango da, urte bakoitzean 350.000 euro jarrita, eta Andirao Eibarko Baserritarren Elkarteak kudeatuko du. Bien arteko hitzarmena sinatuko da laster, horrela proiektua aurrera eraman ahal izateko. Eibarko landa-ingurunea osatzen duten bost bailaretako ba-

koitzak ordezkarri eta bozeramaile bana dauzka Andirao elkartearen, eta elkartearen ardura da bailara bakoitzeko premiak Udalarari adieraztea eta bailaretan lehenatasunezkoztat jotzen dituen jarduerak zehaztea. Jon Iraola alkatearen hitzetan, “hurrengo bost urteetan baserri-bideetan hainbat ekintza integral egitea da helburua, urtero egiten diren lan partzialak osatzeko”.



El Corte Ingles azpiko aparkalekuan Udalak dauzkan 200 plazak zabaltzeko eskaera

Josu Mendicute EAJ-PNVko bozeramaileak aurreko barixakuan jakinarazi zuenez, txosten juridiko batek udal jabetzakoa den El Corte Inglés azpiko aparkalekua “berreskuratzeko” eskatzen dio Udalarari. Mendicuteren berbetan, “EAJk hori eskatzen zuen aspalditik, baina PSEk uko egiten zion”. Baina orain, Udal Idazkaritzak arrazoia eman diola ikusita, eskatutakoa lehenbailehen betetzea eskatzen du

Mendicutek: “Legezko betebeharrak morala da”. Udala El Corte Inglés azpiko aparkalekuko 200 tokiren jabea da, baina merkataritza guneak ateak itxi zituenetik ez dira erabiltzen. Jeltzaleen iritziz, urte eta erdi honetan inork erabili ez dituen toki horiek herritarrentzat zabaldu eta, erabiltzen hasiz gero, Amaña, Ipurua eta erdialdean dagoen aparkaleku faltaren arazoa asko arinduko litzateke.



Udalak eta herriko dendariak Gabonetako kanpaina aurkeztu dute

Udalak eta Eibar Merkataritza Gune Irekiak (EMGI) sustatutako Gabonetako kanpainak edizio berri bat jarri zuen abian martitzenean, argiak piztearekin batera. Udal ordezkariak, EMGI, Eibarko Dendari Elkarteko eta Ostalarien Elkarteko ordezkariekin batera, Errebal Plazan dagoen arbolaren inguruan ekin zioten herriko merkataritza eta ostalaritza bultzatzeko asmoz antolatu duten Gabonetako programari. Aurtengo kanpainak 120.000 eurotik gorako aurrekontua du eta martitzenean egin zuten aurkezpena. Azken bi urteotako murrizketak atzean lagata, aurten berriz ere ohiko jarduerak egingo dira: besteak beste, Gabonetako argiztapena, Astelena pilotalekuko txikiparka, Errebal Plazan ipiniko den izotz-pista eta barrakak egongo dira. Nabarmendu zuten, horiek guztiak antolatzeko ahalegin berezia egin dute, baina urteko saio honetarako garrantzi berezia dauka eta, antolatutako jarduerari esker, herrian egindako salmentak hobe-

tzea espero dute. Horrekin batera, herritarrak Eibarren erostera animatzeko deia egin dute eta, asmo horrekin, Eibarren erosteagatik abantailak eskainiko dituzte. Besteak beste, "Eibar Oparitu" txartela jarriko dute martxan: txartel horri esker, kanpainarekin bat egiten duten establezimenduetan erosi ahal izango da, sustapen bereziki. Txartel hori Eibarko enpresen artean sustatu dute, Gabonetan langileei opari gisa emateko, eta ekimenak oso harrera ona izan du. Herritarren eskura ere jarriko dute, abenduaren 12tik 16ra bitarteko astean, www.erosieibarren.eus web orriaren bitartez, promozio bereziki. Eta, era berean, berritasun gisa "Establezimenduen Gabonetako dekorazioa" izeneko kanpaina jarriko da abian. Horrela, Gabonetarako apaingarri bat emango diete interesa duten denda eta tabernei, beraien lokalak apaintzeko (nahi duten guztientzat eskuragarri egongo da, EMGI-ko kide izan ala ez).



Zurrumurruen kontrako prestakuntza saioak antolatu dituzte

Udaleko Kultura Aniztasunaren eta Immigrazioaren Unitateak eta ZAS! - Zurrumurruen aurkako Euskal Sareak antolatuta, zurrumurruen aurkako prestakuntza-saioak egingo dira Portalean. Antolatzaileen berbetan, "kurtsoaren helburua gizarte-trebetasunak sortzea da, gure ingurune hurbileko bizikidetzeta eta bizilagun-giroa hobetzeko eta, hala, pertsona migrazioa integratzea bultzatzeko". Lehen saioa abenduaren 19an izango da, 18:00etan, Portalea eraikineko ikastaro gelan. Xabier Aierdi EHUKo Soziologiako doktoreak aurkeztuko du, "Migrazio prozesuak: zurrumurruak, pertzepzioak eta jarrerak" izenburuari jarraituta. Bigarren saioa urtarrilaren 16an izango da, ordu eta toki berean: "Immigrazioa, gizartea, eskola, hizkuntza. Elkarrekin pentsatu dezagun" izenburuko Amelia Barquín MUko Filologiako doktoreak emango du. Eta hirugarren saioa otsailaren 13an izango da, "Elkarriketarako eta komunikaziorako trebetasun praktikoak" izenburuari jarraituta eta Korapilatzen aholkularitzako (Aholkularitza, prestakuntza eta coaching-a) kide Asier Gallastegik emango du. Izena emateko, e-maila bidali behar da immigrazioa@eibar.eus posta helbidera.

Eibarko Udalak eta Debegesak martxan jarritako HELDU! programak enpresa-ideiak errealitate bihurtzen laguntzen die programan parte hartzen ari diren arlo desberdinetako ekintzaileei. Oroitz Elgezabal eibartarra ingeniari ekintzailea da. Bogdan Nedavniy ukrainarrarekin batera sortzen ari den enpresaren helburua da teknologia berritzaileen bitartez jasangarritasuna eta ekonomia zirkularra sustatzen dituzten produktuak garatzea.



OROITZ ELGEZABAL • HELDU! programako ekintzailea

“Jasangarritasunean eta ekonomia zirkularrean oinarritutako hiru produktu desberdin garatzen ari gara”

Jasangarritasuna eta ekonomia zirkularra sustatzen dituzten produktuak garatzen diharduzue. Zer nolako produktuak edo tresnak dira?

Gure enpresa-idea industriaren alorrean kokatzen da. Produktuak garatuko ditugu eta etorkizunean produktu horien inguruko zerbitzuak eskainiko ditugu. Heldu! programa oso lagungarria suertatzen ari zaigu gure proiektua ondo fokalizatzeke. Alde batetik, aire konprimatuaren bidez beroa (+180 °C) eta hotza (-60 °C) sortu dezakeen makina termikoa daukagu. -60 °C tenperaturak sortu ditzakete, elikagaien kalitate gorena bermatuz. Ingurumena errespetatzen ez duten freoirik gabeko makinak dira, eta hozteko ez dituzte amoniakoa bezalako gas toxikoak erabiltzen. Aipatutako elikagaien industriaz gain, teknologia hau arlo desberdinetan aplika daiteke: kogenerazio-plantetan; industria petrokimikoan; industria farmazeutikoan/biozientzia; garraio/logistika industriari; industria energetikoan; klimatizazioan...

Horretaz gain, zein beste produktu eskaintzeko asmoa daukazue?

Prozesu katalitiko baten bitartez, amoniakoa hidrogeno bihurtzen duen makina garatzen ari gara. Hidrogenoa ez bezala, amoniakoa erraz likidotu, biltegitatu eta garraiatu daiteke, eta beharrezkoa denean hidrogenozko erregai bihurtu. Amoniakoak gas naturalaren ezaugarri berdintsuak dauzka; beraz, garraiorako eta gordetzeko ez ditu arazo berezirik sortzen eta, gainera, oso baldintza berezietan hartu dezake sua (hidrogenoa, aldiz, oso inflamablea da). Amoniakoa hidrogeno bihurtzeko teknologia horrek erabilera desberdinak izan ditzake: gaur egungo konbustio motorretan emisioak %80 jaisteko eta potentzia %10-15 hobetzeko; argindarra sortzeko hidrogeno pila baten bitartez; elektromugikortasunerako (kotxeak, kamioiak, autobusak, etab.); talde elek-



trogenoentzako (hondamendietan edo azpiegiturarik ez dagoen lekuetan argindarra sortzeko).

Eta, azkenik, hondakin organikoak balioa handitzearekin lotutako makina...

Hori da. Hondakin organikoak erabili daitezke, digestio anaerobikoko prozesu baten bitartez, argindarra eta ura sortzeko. Digestio prozesu anaerobikoek metanoa sortzen dute. Gaur egun metanoa hidrogeno urdina sortzeko erabiltzen da, eta hidrogenoa pila baten bitartez argindarra eta ur bihurtu daiteke. Teknologia hau baserrietan, makroetxaldeetan, hirietan edo hirugarren munduan ura, ongarriak eta argindarra sortzeko erabili daiteke, hondakin organikoak eta energia berriztagarriak erabiliz.

“Aurkikuntza honek puntu bat ezartzen du mapa zuri batean”

JOAKIN GORROTXATEGI • Hizkuntzalaria



Euskararentzat egun historikoa izan zen azaroaren 14a, Nafarroako Gobernuak eta Aranzadi Zientzia Elkarteak hizkuntza baskonikozko idazkunik zaharrena aurkitu dutela jakinarazi baitzuten: “sorioneku”. Irulegiko Eskua deitu duten piezan aurkitu duten idazkuna ikertzen ibili da Joakin Gorrotxategi hizkuntzalari eibartarra.

Aurkikuntzak eztanda mediatikoa eragin du eta Joakin Gorrotxategiaren telefonoa sutan dago Irulegiko Eskuaren berri eman zutenetik. Gurekin batzeko begirunea izan du eta plazera izan da bere ahotik aurkikuntzaren eta euskararen jatorriaren inguruan jardutea.

Demaseko oihartzuna izan du Irulegiko Eskuaren aurkikuntzak, baina zergatik da hain garrantzitsua?

Oso pieza berezia da. Gainera, Aranzadi elkarteok lan ikaragarri ona egin dute gertakizunaren zabalkundean, aurkezpena oso ondo prestatu zuten eta, horri gehitzen badiozu espero ez genuen aurkikuntza izan dela, ulertzen da izan duen oihartzuna. Gainera, euskararekin lotura duela da gure hipotesia, agertu den tokia berezia da... Nire partetik, antzinako grekoek esaten zuten bezala: “Ezer ere ez da larregi”. Gehiegikeria pixka bat nabaritzen dut honetan guztian.

Noiztik zaude berria emateko zain?

Apiriletik, baina udarako aurkikuntzaren inguruan zerbait argitaratu behar izan genuen. Dena ondo esplikatu arte gaia tiraderan gorde dezakegu hainbat urtez, baina kasu honetan badirudi hori ezin zitekeela egin. Beraz, ahal izan den neurrian piezari oinarritzko frogak eta irakurketa bat egin dizkiogu, eta argitara eman dugu. Uste dut irakurketa ondo dagoela %90ean, oraindik gauza batzuk zehatzago ikusi behar dira-eta. Zalantzak daude, gauza batzuk ez direlako ondo ikusten eta zenbait tokitan pieza hobeto garbitu behar delako.

Gainera, toki batzuetan azpiko eta goiko idazkunak ez datoz bat. Bi edo hiru tokitan gertatzen da hori eta ikusi beharko da zergatik den horrela eta zeini ematen zaion lehenetasuna. Beraz, funtsezko gauzak daude egiteko.


Dena dela, argitara ematea erabaki duzue. Zergatik? Badakigulako pieza benetakoa dela. Atzean Iruña-Veleiako mamua dago, neure buruan beste inoren buruan baino gehiago, baina garbi dago pieza hau benetakoa dela.

Nola dakizue hori?

Batetik, indusketa-lana oso ondo jarraitu delako. Dena dago grabatuta eta argazkiekin dokumentatuta, eskuaren puntatxo bat lurrean agertzen den momentutik esku osoa atera arte. Eskua ateratzean lurrez beteta zegoen, baina bertan garbitu beharrean, oso zuhur jokatu zuten eta Nafarroako Gobernuaren zerbitzura eraman zuten han garbitzeko. Garbiketa ere dokumentatuta dago. Alde bat garbitzen hasi ziren eta letrak agertu ziren, marra batzuk, oraindik beste gutzia garbitu gabe zegoenean. Bestetik, bertan idatzita dagoena irakurtzen duzunean konturatzen zara inori ezin zaiola bururatu horrelako zerbait idaztea eta asmatzea. Ezinezkoa da.

Beraz, Iruña-Veleiako kasua bestelakoa zen?

Bai, guztiz. Han agertzen zen gutzia ulertu egiten genuen. Bertan azaltzen ziren Ama Birjina, Jesus, Jose, kalbarioa, Egiptoko faraoi eta erregina famatuak (Nefertiti, Ramses)... Irulegiko Eskuan, ostera, zer da ezaguna? Ia ezer ez.



EKHIBELAR



“Badakigu hau benetakoa dela eta agian euskararekin zerikusia izan dezakeela”

“Irulegiko Eskuan agertzen den horri ez nioke euskara deituko”

‘Sorioneku’ berba bakarrik egiten zaigu ezaguna, zorioneko hitzarekin lotzen dugulako. Berba biek badute zerikusirik?

Eskuan agertzen den horri ez nioke euskara deituko. Piezaren %20 bakarrik ulertzen dugu edo, hobeto esanda, uste dugu ulertzen dugula. Beraz, gauzak tentuz hartu behar dira eta lan asko egin behar da oraindik. Guk hipotesi bat dugu, baina ikusiko dugu aurrera doan ala ez. Ulertzen dut honekin guztiarekin jendearengan sortu den poza, baina gertatzen dena da jendeak lehenengo berba hori (sorioneku) ulertzen duela eta beste guztia ez, eta hala ere bost axola dio ez ulertzea. Horrekin nahikoa dela uste dute, baina niri horrek ez dit balio. Ahal bada, idazkun osoa ulertu behar da, eta esango nuke oso zaila izango dela hori guztia ulertzea. Urteak pasako dira eta agian ezinezkoa izango da beste dokumentu gehiagorik ez dugun bitartean.

Beste aurkikuntza bat beharrezkoa izango da gainontzeko testu guztia ulertzeko?

Ez dakit. Hori ulertzeko bi gauza egin behar dira. Hartu dezagun ‘sorioneku’ berba. Zorioneko hitzarekin lotu da, baina ia-ia esango nuke ezinezkoa dela. ‘Eku’ horrek ezin izan du ‘eko’ eman. Nik azpimarratuko nukeena da, nahiz eta bere arazoak eduki, ‘sorion’ dagoela hor. Horrek badu zentzu moduko bat eskuarekin. Idazku-

na oso aparta da, ez dago horrelako idazkunik, esku baten gainean. Bakarra da. Iberieraz, zeltiberieraz eta beste epigrafia batzuetan idatzitako testuak asko dira (3.000tik gora), baina horrelakorik ez da inon agertu. Orduan, parekorik ez duenez, zaila egiten zaigu antzeko gauzekin konparazioak egitea. Dakigun euskararekin konparazioak egitea bakarrik geratzen zaigu. Horregatik, ‘sorion’ euskararekin konparatu dezakegu eta eskuak duen sinbolismoarekin zentzua izan dezake. Izan ere, nahiko zabaldua da eskua babesa adierazteko erabiltzen zela edo zentzu apotropaikoa zuela, hau da, gaitzak uxatzeko erabiltzen zela.

Eskua K.a. I. mendekoa da, eta gerra giroa bizi zen eskua aurkitu zen tokiaren inguruan, ezta?

Bai. Hango biztanleak oso trantze zailean zeuden eta horrekin lotu daiteke eskua. Ez dut uste eskuak gaur egungo ekiloreak bezala etheen atarian jartzen zituztenik, edo jendeari ongi-etorria emateko erabiltzen zirenik. Trantze hura oso gogorra izan zen, hil ala biziko kontua, eta zerbaitekin lotzekotan, eskua momentu horrekin lotuko nuke, baina hipotesia besterik ez da, badituelako zailtasunak.

Zein zailtasun?

Adibidez, ‘sorion’ berban aspirazio bat espero genuen, ‘sorihon’ moduko bat. Egia da orduko sistema grafikoak



Ezkerrean, Irulegiko Eskua aurkitu zen leku zehatza. NAFARROAKO GOBERNUA. Eskuinean, Irulegiko Eskua eta bertan idatzita dagoen testua. ARGIA

ez duela 'h'-a edo aspirazioa markatzeko modurik eta, tira, agian zailtasun hori gainditu dezakegu. Baina hasieratik harritu ninduen zera da: 'sorioneku' hain erraz ulertzen badugu, hurrengo hiru lerroetan zergatik ikusten dugu hain ilun kontua? Neurri batean, kontraesana dago hor. Batzuk diote 1.600 urte pasa direla Irulegiko Eskutik euskarazko lehenengo testu-tara (XVI. mendekoak) eta normala dela ez ulertzea. Neurri batean egia da hori, baina, argumentu hori erosten badut, zergatik ulertzen dugu 'sorioneku'?

Honen guztiaren harira irten den beste galdera bat da ea honek euskararen jatorria argitzen duen. Argitzen du?

Momentuz ez, noski. Idazkun honi azalpen osoa eta sakona ematen ez diogun bitartean, lehen bezala gaudela. Honek ez du frogatzen lehen euskara egiten zenik, bagenekien baskoien lurraldean euskara egiten zela. Euskararekin lotu ditzakegun dozena bat inguru izen propio dokumentatuta daude. Alde horretatik, honek ez du gauza berririk ekarri. Galdera ugari ekarri ditu eta arazo asko jarri dizkigu mahai gainean.

Orduan, zein gauza berri ekarri digu aurkikuntza honek?

Lehen ez genuen idazkunik. Tira, hori ere ez da egia. Idazkun batzuk bagenituen. Adibidez, txanponetan

izenak agertzen dira. Kontua da idazkun honetan lau lerro agertzen direla.

Garrantzitsua da idazkuna osorik egotea?

Bai. Berriz diot, pieza berez da oso garrantzitsua. Aparta da. Batetik, esku itxurako pieza batean dago idatzita eta ez dago horrelako besterik. Bestetik, idazkerari dagokionez, badago ikur edo zeinu bat, 'T' itxurakoa, gure ezagueraren arabera baskoien lurraldean erabiltzen zena. Horrek aditzera ematen du testua ez dela kanpotik ekarri, bertan idatzi zela, eta hori ez genuen hain seguru orain arte. Txanponak bai, bertakoak dira, baina gauza ofizialak dira, agintariak enkargatu zitzaizketenak. Bestetik, badago orain dela 30 urte inguru agertu zen beste idazkun garrantzitsu bat, Muruzubal Andiongo mosaikoa, Mendigorria inguruan. Hori ere bertakoa da, baina paradoxa bat gertatzen da mosaikoarekin. Baditu paraleloak, Teruelen eta Zaragozan oso antzeko mosaikoak agertu baitira, latinez idatzita eta teknika berberekin. Horrek Ebro bailararen lurralde horretara eramaten gaitu, baina Irulegiko Eskua Iruñea ondoan agertu da, baskoien lurraldearen bihotzean. Lehen hor ez zegoen horrelako aurkikuntzarik eta honek puntu bat ezartzen du mapa zuri batean. Gainera, aztarnategi horretan gauza gehiago agertzeko esperantza ematen digu.



Eskua aurkitu zeneko argazkia NAFARROAKO GOBERNUA

Nolako gauzak aurkitu dira bertan?

Zeramika pusketetan zeinu batzuk agertzen dira, baina apurtuta daude eta ez daude osorik. Dena dela, idazten zekitela aditzera ematen du. Orain arte ez genuen ezer eta honek esperantza ematen digu.

Idazteko moduari dagokionez, zer esango zenuke?

Testu honek erakusten digu bi fase zeudela idazkerak egiteko orduan. Lehenengo marraztu egiten zuten eta, gero, zizelarekin gainetik puntuatu egiten zuten. Orain arte puntuz egindako letrak ezagutzen genituen, baina azpian ez zegoen ezer. Beraz, nola demontre egiten zuten? Zuzenean zizelkatzen zuten? Marraztu egiten zuten? Aurkikuntza honekin pentsatzen dugu lehendabizi marraztu egiten zutela eta gero zizelkatu. Eta oso zorionekoak izan gara aurkikuntza honekin, piezako zenbait tokitan desadostasunak daudelako azpiko eta gaineko letren artean.

Nolako desadostasunak?

Azpian letra bat markatzen du eta goian beste letra bat. Orduan, zeini ematen diogu lehenasuna, goikoari edo azpikoari? Beste testuen aurrean inoiz bururatu ez zaigun arazo bat dago hor. Galdera asko sortzen zaizkigu eta gauza batzuei erantzuna eman ahal izango diegu.

Eta beste batzuei ez?

Ez, baina oso garrantzitsua da testu historiko gisa. Gainera, testuinguruari dagokionez, toki eta sasoi esanguratsuan kokatzen da. Esate baterako, orain dela 30 urte inguru brontzezko pieza txiki bat agertu zen Arangurenen. Zatitua zegoen eta hitz bat osorik ere ez zuen ematen. Ez genekien zeltiberiarrez edo zein hizkuntzatan idatzita egon zitekeen, baina pentsatu izan genuen agian kanpotik ekarri zutela (legionario edo soldaduren batek, auskalo). Testuingururik gabe agertu zen eta horrela zaila da ezer aztertzea. Irulegikoren Eskuak, oster, testuinguru garbia du eta argitu dezake Arangurenen aurkitutako brontze hori hemengoak izan zitekeela.

Iberierazko ipar-ekialdeko idazkeraren antzeko zeinu kodean dago idatzita Irulegiko Eskua. Zenbateraino zegoen sartuta iberiera baskoien lurraldean?

Ez dakigu. Iberieraz idatzitako testuak Katalunia osoan, Ebro bailaran Zaragozara bitartean eta beste zenbait lekutan dokumentatu dira, baina lurralde honetan sartu zen? Ez? Erabiltzen bazen, nola erabiltzen zen? Beste batzuek galdetu dute ea Irulegiko Eskuan agertzen dena ez ote den iberiera.

Zer uste duzu?

Hirugarren lerroan iberieraz dokumentatuta dagoen berba bat aurkitzen dut, baina beste 'r' batekin dago dokumentatuta, ez dago grafia berean. Beraz, iberierarekin lotu dezakegu? Azaleko parekotasuna da beste barik? Iberiera irakurtzen badakigu, baina ez dugu ulertzen. Ulertuko bagenu, eskuan agertzen dena iberieraz dagoen edo ez jakingo genuke. Irulegiko Eskuaren parekorik ez edukitzea zorigaitzekoa da, ez dugulako paralelorik. Eskuaren ordez hilerri bat agertu izan balitz, hildakoaren izenarekin eta abar, iberieraz horrelako pare bat dozena ezagutzen ditugunez, azkar jakingo genuke iberiera ala euskara den.

Esan duzun bezala, hau puntu bat da orain arte zuri zegoen mapa horretan. Baina, gutxienez, mapa horrek dagoeneko badu puntu bat hurrengo puntua aurkitzen denerako.

Horregatik da garrantzitsua. Testu honi buelta asko emango zaizkio, baina denbora asko beharko da zerbait argitzeko. 'Sorioneku' berbarekin egin dugun bezala, lotura gehiago egin behar dira euskararekin. Eta esan bezala, 'Sorioneku'-k ere arazoak ematen ditu. Aspirazioaren arazoa gainditu daiteke, baina 'eku'-tik 'eko'-ra pasatzea ezinezkoa da. Euskararekin lotzekotan, beste gauza bat izan behar zuen. Gainera, 'ku' irakurtzen badugu, hori transkripzioa da, horren azpian 'gu' ere irakurri zitekeelako. 'Sorioneku' jartzen dugu belarrira ematen digulako, baina 'sorionegu' jarri zitekeen. Eta gauzak askoz ere gehiago konplikatzeke, aipatutako desadostasunetako bat (barruko eta goiko parteetan) justu hor dago.

Askok dira zalantzak, baina zer sentitu zenuen aurkikuntzaren berri eman zizutenean?

Bihotzean zirrara sentitu nuen, ia buelta eman zidan. Iruñea ondoan, baskoien lurraldean horrelako zerbait agertzea, esku baten gainean... Gauza guztiek toki berera eramaten zuten. Ze poza! Baina gero, beste hiru lerroak irakurtzean, ez nuen ezer ulertzen, iberieraren aurrean sentitzen dudana sentsazio berbera nuen, eta oraindik ez gara hortik atera. Orduan, alde batera edo bestera joango gara, baina momentuz hor gabilta.



Hizkuntzalari moduan zer esanahi du zuretzat aurkikuntza honek?

Erronka ikaragarria eta buruhauste handia (barreak). Jendearengan sortu duen pozak eta ilusioak. Iruñia-Veleiak eragin zigun atsekabea atzean lagatzen dute. Badakigu hau benetakoa dela eta agian euskararekin zerikusia izan dezakeela. Ikertzeko dago oraindik eta hipotesia besterik ez da. Antropologoek ere hitza hartu beharko lukete, eskuak berak zer adierazi dezakeen argitzeko, testuan sartu gabe edo, era berean, testuari funtzio bat emateko.

Karrera amaitzen zaudenean erori zaizu esku artean horrelako erronka bat. Erretiratu arren, gertutik jarraituko duzu ikerkuntza?

Erretiratu egingo naiz eta ez dut lanak eskatzen dituen betebeharrak edukiko. Ofizio honek gustuko gauzak egiteko aukera eman dit, baina baita beste betebeharrak batzuk ere. Horiek aparte utziko ditut eta denbora gehiago izango dut nire gauzetarako eta pixka bat gozatzeko. Hala ere, bai, ikerkuntza jarraituko dut, baina ez naiz lehenengo lerroan egongo. Gainera, oso ondo prestatuta dauden filologo eta hizkuntzalari gazteak ditugu, eta eurek ere hitza hartu behar dute. Esku onetan gaude.



JOSU AGIRRE

Hortzak estuturik

Izenburuak ez zaitzala nahasi. Ez naiz *bruxismoari* edo bereziki loaldian pertsona askori gertatzen zaien oharkabeko *hortz-karraskari* buruz arituko.

Ez, hain zuzen ere “Hortzak estuturik” gure herriko **Su Ta Gar** talde heavy-metaleroak 1992. urtean atera zuen itzelezko diskoaren izenburua da. Musikak burua gogorki astintzen zigun garai haiek ekarri nahi ditut ...eta kitto!-ko bazter honetara.

Urte hartako udako arratsalde bero bat zela, Untzagako taxien geltokiko zebra bidea gurutzatu ostean, Isasi kaletik gora abiatu nintzelarik, Astelena frontoiko espaloitik aldapan behera zihoan tipoari erreparatu nion: melena beltza luzea eta askea, praka bakero estu-estuak eta tirantedun kamiseta beltza, sorbaldatik zintzilika zeraman heavy estiloko larruzko txaketa eta *cowboy* botak.

Nola *ez erreparatu* ba, horixe zen kontua.

Nor ote? *Axl Rose? Richie Sambora?* Ez, Borxa Arrillaga zen, Su Ta Gar-eko bateria-jolea. Hark ez nau ezagutzen, baino arratsalde hartan zeharo flipauta utzi zuen gaztetxo hura naiz.

Borxaren piurarekin gertatu zen moduan, Su Ta Gar-en musikak bereziki liluratu ninduen eta oraindik jarraitzen nau liluratzan (jarrera politiko batzuekin deseroso sentitu banaiz ere).

Kuriosidade moduan, urte hauetan guztietan Xabi, Aitor edo Asierrek nire gurasoen elektrizitate-dendan zeozer erosten zuten bakoitzean, amak aukera aprobetxatzen zuen *-ama batek bakarrik egiten dakien moduan-* autografo edo gitarra-pua bat etxera ekartzeko.

Beste behin, kuadrillako batekin batera Madrilen kontzertua ikusteko sarrerak eskuratu eta asteburu ederra planeatu genuen. Tamalez, taldeak zentsura kanpaina lotsagarri bat jasan eta emanaldia bertan behera geratu zen. Kontua da aste horretan Asier Osoro baxu-jolea amaren dendatik pasa zela eta nire amak gure asmoaren berri eman zion. Handik egun batzuetara, Asierrek gure etxeko telefonoa lortu eta deitu zuen, kontzerturik ez zela egongo abisatuz. Horixe detailea!

Eibartik -mundu osora- euskaraz esportatu dugun kultura-ekarpenik potenteenatarikoa da Su Ta Gar, eta, taldeak izan duen ibilbide bikaina ikusita, pentsatzen dut merezi dutela jasotzea eibartarrongandik errekonozimendu publikoa. Lerro hauen bitartez behintzat, bihotzez nire errekonozimendua badute.

“Eibartik -mundu osora- euskaraz esportatu dugun kultura-ekarpenik potenteenatarikoa da Su Ta Gar”



57. DURANGOKO AZOKA
 2022ko abenduaren 7tik 11ra
www.durangokoazoka.eus



Sorkuntzaren eta jaiaren eztanda

Durangoko Azokak "eztanDA!" egingo du abenduaren 7tik 11ra

Azken bi urteotako murrizketak alde batera lagata, ohiko formatua berreskuratuko du aurten Durangoko Azokak. Abenduaren 7tik 11ra egingo da, *EztanDa!* lelopean, eta, aurrez aurreko salmentaz gain, online dendari ere eutsiko dio.

Gerediaga elkarteko presidente Nerea Mujikak azaldu duenez, 57. Durangoko Azokan euskal kulturaren "eztanda" biziko da: "Sorkuntzaren eta jaiaren eztanda izango da; Durango osotik eta Euskal Herri osorako zabalduko den eztanda. Bost egunez iraungo duen eztanda".

Idea horri tiraka sortu du, hain justu, Ruben Ramos diseinatzaileak aurtengo azokarako kartela. "Ilustrazioak unibertsoaren eta Big Bangaren hedapenera eramaten gaitu. Inklusibitatearen baitan, pertsona ezberdinen (ez emakume, ez gizon) ideiak, ilusioak eta norberaren imajinario koloreduna irudikatu dut. Kulturak berak, bai literaturak, bai musikak, beste leku batera eramaten gaituen isla".

Kartela ez ezik, DA! irudi korporatiboarekin batera zabalduko den ikono berri bat ere sortu du egileak aurtengo ediziorako: "Izar moduko ikono bat da, eztanda irudikatzen duena".



Kulturazaleak iazko azokan.

Ohiko guneak

Ikasle Goizarekin emango diote hasiera egitarauari hilaren 7an. Bertaratuko diren milaka ikasleek hainbat jardueratan parte hartzeko aukera izango dute –komikiak sortzeko tailerrean edo *PortaDa!* erronkan, esaterako–. Eta, lehen aldiz, hezitzaileek tailerrak jasoko dituzte –hezkuntzarako baliabide digital libreei buruzko saioan eta euskal kulturaren transmisioaren gaineko solasaldian–.

Horrez gain, bost eguneko kultura programazioa izango da bertaratzen direnentzat, hainbat gunetan banatuta: Irudienea,

Saguganbara, Ahotsenea, Kabi@, Talaia eta Szenatokia. Askotariko hitzorduak egongo dira bertan aukeran, beste behin ere.

Ahotseneako eszenatokian, adibidez, 47 talde arituko dira eta, azken urteetan bezalaxe, zuzeneko emanaldiak Plateruenan izango dira. Sarrera doakoa izango da eta ez da beharrezkoa izango aldeztatik izena ematea. "Ahotsenea sortzaileen topalekuak 15 urte beteko ditu aurten eta ospakizun berezi honetarako bost eguneko musika-maratoia antolatu dugu", nabarmendu dute guneko arduradunek.

Online denda

Landako guneko aurrez aurreko erakusmahaietz gain, aurten ere erosketak etxetik egiteko aukera egongo da abenduaren 7tik 10era. Denda digitalean –*durangokoazoka.eus* atarian– azokako nobedade guztiak egongo dira eskuragarri. Eta behin azoka amaituta, abenduaren 11tik aurrera, *Zu non, han Da!* egitasmoaren bitartez, Euskal Herriko hamaika dendatan Durangon aurkeztuko diren nobedadeak erosteko aukera egongo da, hirugarren urtez. Horrez gain, liburu aurkezpenak ere antolatuko dira hainbat saltokitan.

Argitaratzailea: Debabarreneko Komunikazio Taldea

Azala: Ruben Ramos

Erredakzioa: Ainhoa Andonegi, Ekhi Belar, Dorleta Vidal, Ubane Madera, Izaro Aulestiarte

Diseinua eta maketazioa: Oier Larreategi

Tirada: 18.710 ale





"Kulturari ekarpenik handiena sortzaile eta kulturazaleek egiten diote"

BEÑAT GAZTELURRUTIA GEREDIAGA ELKARTEKO KIDEA

Normaltasun egoera berreskuratuko du aurten Durangoko Azokak, eta horren nondik norakoak azaldu ditu Gerediaga Elkarteko Beñat Gaztelurrutiak.

Bi urteren ondoren, betiko formatua berreskuratuko du azokak. Pozik?

Bai, jakina. Azokarentzat urte zailak izan dira, gizarte osoarentzat izan diren moduan. Sasoi nahasiotan guztiok daukagu gauzak bere onera etorriko diren ametsa. Baina, susmoa dut, aurrerantzean dena izango dela gero eta desberdinagoa.

Zer eskainiko du aurten azokak?

Azoka barruko espazioaren antolamenduan aldaketa batzuk egin ditugu, liburuak eta musika berreztuta. Apalategi bat ere montatuko dugu, euskarazko liburu berriak eskuartean hartu eta kontsultatzeke. Diskoen kasuan, QR kode bidez disko bakoitzeko kanta bat entzuteko aukera egongo da. Gauza gehiago ere bai, 250 aurkezpenetik gora gune eta hainbat diziplinatan eta abar. Onena bertara etorri eta norberak ikustea da.

Zein da Durangoko Azokak euskal kulturari egiten dion ekarpena?

Kulturari ekarpenik handiena sortzaileek eta kulturazaleek egiten diote. Azokaren lana da harreman hori indartzea, batzuei bere lana erakusteko plaza emanez eta bes-



Beñat Gaztelurrutia. ANBOTO

teei bila aritzeko bidea erakutsiz. Azokak egiten duen lan hori berri egiten dute urtean zehar hainbat eragilek. Dena den, ez naiz oso oker ibiliko esaten badut euskal kulturaren agerraldi handienetarikoa dela Azoka, eta hori ekarpen handia da, euskal kultura existitzen den froga garbia delako eta euskal kultura badela defendatzen dugunok indarrez betetzen gaituelako. **Pandemiak kulturagintza jipoitu zuen. Bi urteko etenaldi horri eman al zaio buelta?**

Ez nuke esango euskal kulturaren arazorik handiena pandemiaren jipoia denik. Benetako arazoa da ez garela nahikoa kulturazale kul-

tur-ekosistema osasuntsu bat mantentzeko. Horri ez badiogu heltzen bere ertz guztietatik, jai daukagu.

Datuen arabera, papera izugarri garestitu da, liburuak ez dira irakurtzen, diskoak ez dira saltzen... badirudi gauza asko kontra dituela Durangoko azokak. Zein espektatiba duzue aurtengorako?

Ertz asko ikutu dituzu galdera bakarrean. Paperaren garestitzea bizitzaren garestitzearekin lotu behar da, eta erosahalmena jaitzen denean badakigu kultura izaten dela kaltetuenetako bat. Diskoak ez saltzea digitalizaioarekin ere lotu behar da. Digitalizazioak gauza onak ekarri ditu, musikagintza "demokratizatu" egin du, autoekozipena sustatu du, bide berriak zabaldu ditu. Baina, aldi berean, euskarri fisikoa desgertzeko bidean jarri du eta, horrekin batera, sortzailearentzako diru-sarrerak. Bistan da arazoak asko direla eta Azokak berak bakarrik ez diela irtenbiderik emango guztiei. Uste dut asko hausnartu eta pausoak adostu behar direla eragileen artean, eta horrek eskatzen du hausnarketa zintzoak egitea eta eskuzabaltasunez jokatzeko.

Nola ikusten duzue etorkizuna?

Etorkizunari baikortasunez begiratu behar zaio beti. Ez gaitezen autobetetako profetia baten jausi. Euskal kulturak egiturazko arazoak ditu, baina lanean gogoz ari den balio handiko jende pila ber ere bai. Nik neuk horri heltzen diot. Aurtengo Azoka behintzat ederra izango da, eta datozenak ederragoak izan daitezen lanean jarraituko dugu.

"Euskal kulturaren agerraldi handienetarikoa da azoka"

Debarreneko uzta

DEBA - ITZIAR

LITERATURA



**ERIKA LAGOMA POMBAR
ETA ESTITXU FERNANDEZ
MARITXALAR 'M ama* eme*
ume*'**

Tene Mujika beka. Debako Udalak eta Elkar argitaletxeak elkarlanean argitaratutako lana.



**JON ABRIL OLAETXEA 'Isildutako
eskuak. Emakume langileak gerra
ondoko Euskal Herrian'**

Tene Mujika beka. Debako Udalak eta Elkar argitaletxeak elkarlanean argitaratutako lana.

**TENE MUJIKA
UDAZKENEKO ARGITAN**
Cira Crespo




**CIRA CRESPO 'Tene Mujika.
Udaleko argitan'**

Debako Udala. Durangon Elkar-ek salduko du bere postuan.




NEREA LOIOLA '7G udalekuak'

Erein.
Aurkezpena: abenduak 10, larunbata,
13:30. Ahotsenean.



NEREA LOIOLA 'Epicentro'

Gaztelera. Erein.



NEREA LOIOLA 'Naian'

Erein.

Aurkezpena: abenduak 10, larunbata,
17:00. Saguanbaran.

MUSIKA




**NEOMAK TALDEA** 'Neomak'

Airaka.

Aurkezpena: abenduak 8, osteguna, 15:40. Ahotsenean.

EIBAR**MUSIKA****MICE** 'Lautada'


Forbidden Colours.

**KOKEIN** 'Atomika'

Autoekoitzia.

**MARKOS UNTZETA** 'Ekilibrista'

Gaztelupeko Hotsak.

**SUTAGAR** 'Alarma'

Autoekoitzia.

**LORELEI** 'Ekografiak'

Elkar.

ELGOIBAR - MENDARO**LITERATURA****UXUE ALBERDI** 'La belle'

Elkar argitaletxea.

**DANELE SARRIUGARTE** 'Assata shakur autobiografia bat'

Itzulpena. Katakarak.

**DANELE SARRIUGARTE** 'Hamahiru ipuin'

Luisa Carnesen ipuinen itzulpena. Erein.

MUSIKA**JON GURRUTXAGA** 'Belar Hostoak I&II'

Elkar. Txomin Artolak, Walt Whitmanen testuekin, 1978an argitaratu zuen Belar Hostoak diskoaren moldaketa berria kaleratu du Elkar argitaletxeak lan bikoitz honetan. Artolak Mixel Ducau, Jean Phocas, Beñat Amorena eta Robert Suhas izan zituen bidelagun 78an. Lan hari keinua Jon Gurrutxagak, Urbil Artolak, Dani Venegasek,



Antxon Sarasuak eta Andoni Etxebestek egin diote oraingoan.



MARACA DIABLO 'Maraca diablo'
Screaminguy records.

ERMUA

LITERATURA

TXABI ARNAL 'Hiru lehoi'
Elkar argitaletxea.

MUTRIKU

MUSIKA



SAIA GOAIT 'Miazkatu'

Autoekoitzia. Musika Zuzenean erakusmahaiaren egongo dira diska saltzen.



DELIRIUM TREMENS. 'Hordago'

Mauka musikagintza.
Aurkezpena: abenduak 7, asteazkena, 21:30. Ahotsenean.

SORALUZE

MUSIKA

PAUL SAN MARTIN 'Single'
Gaztelupeko Hotsak.



MORAU ETA BEÑARDO 'Ardo'

Disko liburua. Gaztelupeko Hotsak.

SYMBIOSIS 5 Jazz Getxo
Gaztelupeko Hotsak.



MAINLANDER 'Mainlander'

Gaztelupeko Hotsak.



KIKE ARZA ELECTRIC QUARTET 'Biharko Mendekaitz'

Gaztelupeko Hotsak.



ORGANIZING 'Short Stories'

Gaztelupeko Hotsak.





THE NEW JAZZ COLECTIVE 'Lucio Urtubia'

Gaztelupeko Hotsak.



RS FAKTOR (RUBEN SALVADOR) 'Equanimity'

Gaztelupeko Hotsak.

JON PIRIS & IÑAR SASTRE 'Pasieran'

Gaztelupeko Hotsak.



XAHU 'Gero gerokoak'

Gaztelupeko Hotsak.



HUTSUN + JEL TRIO Artze

Gaztelupeko Hotsak.



57. DURANGOKO AZOKA ONLINE
www.durangokoazoka.eus



**Online denda
 zabalik
 abenduaren 7tik
 10era**

**Nobedade
 guztiak
 eskuragarri**

ESTANDA!

"15 bat disko argitaratzen ditugu urtean, seguru aski, Euskal Herrian gehien"

UBANE UZIN GAZTELUPEKO HOTSAK DISKOETXEKO KUDEATZAILEA

Soraluzeko Gaztelupeko Hotsak diskoetxeak disko ugari izango ditu Durangoko Azokan salgai, euren banatzaile den Elkar argitaletxearen stand-ean; jazz asko, blues diskoak, disko-liburu tematikoa... musika mota asko eta artista mordoxkaren lanak ondu dituzte azokarako.

Zelako uzta eramango duzue Durangora?

Askotarikoa. Andoni Tolosa *Morauk* eta Beñardok ateratako ardoari buruzko disko-liburutik hasi, Mar-kos Untzeta eibartarraren disko-tik segi, blues diskoak, jazz asko... Bestalde, Txuma Murugarrenena ere badugu, baina atzeratu egin da.

Artista asko egotea kasualitatea da?

Gaur egun, musikak dituen aldatketekin, dibertsifikatu egin beharra dago; guk horrela egin dugu eta momentuz, ondo funtzionatzen digu.

Zergatik dibertsifikatu beharra?

Musika euskarri fisikoan geroago eta gutxiago saltzen da. Lehen ateratzen zenuen produktu gutxi eta horietatik asko saltzen zen; orain, berriz, produktu gehiago atera behar dira, izan ere, horietatik gutxiago saltzen da.

Diskoek ezaugarriak ere aldatu dira? Motzagoak dira...

Ez, lehengo modukoak. Azken batean, diskoak zuzenekoan defendatu behar dira eta zuzenekoak ordubete pasako kontzertuak izaten dira.

Aipatu dituzun izenen artean badaude aspaldiko klasikoak, 'Morau', adibidez...

Bai, Andoni Tolosa etxekoa da, aspaldi ezagutzen dugu. Gainera, oso emanaldi kuriosoa egin du, ardoaren inguruko tematikoa, Biba Ardoak-ekin elkarlanean... Soraluzen izango da emanaldia abenduko lehen asteburuan; beste hainbat lekutan ardo kata eta guzti egiten du. Adibidez, Chillida Lekun, Biba Ardoak-ek ardo ipini zuen eta Chillida Lekun pintxoak, musika entzutera joatea baino gehiago izan zen, esperientzia oso bat.

Aurten, baina, ez zarete egongo Durangoko Azokan Gaztelupeko Hotsak moduan...

Fisikoki ez. Gaur egun, musika enpresa guztiak orokorrean txikiak dira; guk bestelako lan karga han-

dia dugu Gabonen buelta honetan eta ezin gara biderkatu. Elkar da gure banatzailea eta han egongo dira gure produktuak.

Bestalde, gauza asko eramango dituzue, baina beste asko ezin dituzue eraman, ezta?

Horrela da. Durangoko Azokara, hemengo musikariak izateaz gainera, euskarazko produkzioa eraman behar da. Guk, berriz, produkzio asko dugu ingelesez, blue-sa, batik bat, eta horrek han ez dauka lekurik.

Liburugintza ere lantzen duzue; hortik eramango duzue zerbait?

Ez. 2022ko erabakietako bat izan da libururik ez publikatzea. Guk bi urte daramatzagu digitalizatze prozesuan eta ez dugu gaitasunik denean egoteko. Musika salmentara bera digitalera doa.

Buruhauste handia da?

Hori baino, beste lan batzuk egitea eskatzen duela. Gainera guri musika fisikoa eta zuzenekoak gustatzen zaigu, oso arrotza egiten zaigu bestea.

Zailtasunak zailtasun, Euskal Herrian gehien produzitzen duen diskoetxea da Gaztelupeko Hotsak?



Ubane Uzin Durangoko Azokara eramango dituzten produktuetako batzuekin. FERNAN OREGI.

Bai, seguru aski bai. Urtean erreferentzia asko ateratzen ditugu, gutxiago saltzean disko gehiago atera behar ditugulako urtean salmenta iturriak antzerakoak izateko. Urtebetean, 15 bat disko (erreferentzia) argitaratzen ditugu.

Hala ere, zuen helburu nagusia ez da izan inoiz salmenta handiak lortzea edo udako kantak sortzea...

Bueno, hortik bizi gara, baina beti izan gara ibilbide luzeko produktuak ateratzekoak. Gu gara Serie B. Eta ohore handiarekin, gainera.

Zenbat erreferentzia ditu Gaztelupeko Hotsak diskoetxeak?

450etik gora, 90eko hamarkadatik hona.

Eta zeuen lekuari eusten segitzen duzue.

Bai, geroago eta gehiago gaude espezializatuta musika beltzean eta oso-oso gertuko diren euskal artistekin. Egia esan, beti esaten dugu ez garela sartu behar gauza berrietan, baina batzuetan etortzen zaizkigu gauza berriak, bigundu egiten gara eta aurrera egiten dugu. **Artista berriendako, baina, bazarete erreferentzia...**

Bai, baina geroago eta zailagoa da artista berri batekin aurrera egitea. Nik uste dut musikagintzan, disko eta kantu on bat egin ahal dela,

"Durangoko Azokak beti ematen du zerbait eta produktu berriak ateratzeko epe bat jartzen du"

baina gero hori taula gainean defendatu egin behar da eta gaur egun benetan zaila da. Antzokietakoek nahi dute antzokiak beteko dituzten artistak. Eta halako gutxi daude. Lehen, musika taldeek bira egiten zutenean, Soraluzeko Gaztetxea bira horren barruan zegoen, kontzertu areto modura. Edo txosnaguneak ziren sasoi batean artista berriendako aukerak. Orain, berriz, txosnaguneetara ere talde handiak joaten dira. Hasi-berri batendako oso zaila da. Eta egon badaude. Begira Debagoienan egiten ari diren Danbakan zenbat talde dauden. Baina, leku ofizialetan taldeek bete behar dituzten baldintzak oso nekezak dira: Gizarte Segurantzza, nominak... ordaindu behar dituzte, ondorioz, amateurismoa asko moztu da. Amateurrek ere profesionalen pareko baldintzak bete behar dituzte eta hori musikagile edo musika talde berri batendako benetan zaila da.

Durangoko Azokara bueltatuz, ematen dio bultzada musikagintzari?

Nik uste dut beti ematen duela zerbait. Eta gainera, epe bat jartzen du, eta produktu berriak Durangoko Azokari begira egiten dira. Gauzak asko aldatu dira, baina Durangoko Azoka bera ere asko aldatzen ari dira.

"Garenak gara, iraganean halakoak izan ginelako"

ASIER SERRANO LORELEI

Lorelei musika taldeak 'Ekografiak' (Elkar, 2022) izeneko diskoa kaleratu du taldearen sorreraren 25. urteurrenean.



Zerk bultzatu zaituzte bi hamar-kadaren ondoren disko berria kaleratzera?

Orain dela hiru urte kontzertu batzuk emateko elkartu ginen, ilusioarekin eta, batez ere, herdoila kentzeko. Hamar kontzertu izan behar ziren, baina pandemiaren ondorioz hiru eman genituen. Oso harrera ona izan genuen. Gero, bakoitzak bere odisea edo miseria pertsonalak pasa zituen. Niri, adibidez, lepoko ebakuntza larria egin zidaten. Ondo atera zen, baina min neuropatikoa eratu zitzaidan besoan eta ez negoen ezertarako. Orain animoz hobeto nago, baina joan den urtea gogorra izan zen. Orduan, Nortonek, animatzeko edo, diskoa grabatzea proposatu zidan.

Eta baiezkoa eman zenion?

Nahiz eta sormenerako panggal egon, Nortonek lehenengo abestiaren doinua pasa zidanean, nagitasunez, baina heldu egin nion. Barealdia sentitu nuen, gertatzen

ari zitzaidanaz berba egiten nuelako. Diskoan sentimendu unibertsalak jarri nahi izan ditugu, baina abiapuntu oso intimotik. Modu terapeutikoan edo, beste kantuak konposatzen hasi nintzen Nortonekin eta disko hau "behin betiko diskoa" izan zitekeela pentsatu nuen. Ez azkena, baina bai herentzia moduan lagatzeko diskoa. Loreleik eman didana eta niretzat duen esanahia islatu nahi izan dut bertan.

Nolakoa izan da grabaketa?

lazko abenduan eta urtarrilean grabatu genuen diskoa, eta orain arte sekretuan eduki dugu. Ia urtebete egon da izozkailuan, minak

"Diskoan sentimendu unibertsalak jarri nahi izan ditugu, baina abiapuntu oso intimotik"

noiz baretuko eta noiz indarberrituko zain, irailan argitaratu arte. Prozesu lasaia izan da. Sasoi hauetan diskoek beste toki bat hartu dute eta Elkar argitaletxeok esaten ziguten zaharrak garela eta presarik ez dugula. Beraz, lasai hartu dugu, beste arlo batzuetan indarra jarri (diskoaren azalean, adibidez) eta artefaktuaz gehiago gozatu dugu.

Aita izan zara berriki. Horrekin zerikusia du 'Ekografiak' izenburuak?

Horrekin lotuta dago, baina era berean ez. Azken urteetan proba mordoa egin dizkidate eta ekografie saso batetako tarot irakurleen zentzua hartu diet. Ekografie oihuak jaurtitzen dituzte eta horren erantzuna jasotzen dute. Kontzeptu horretan sakondu nahi izan dugu. Izan ere, adin honetan gure gorputzen mugimenduak neurtzen ditu eta, besetik, iraganean botatako oihuak gaur egun nola jasotzen ditugun



Mikel Gorosabel 'Norton' eta Asier Serrano berriz elkartu dira Loreleiren disko berria sortzeko.

adierazten ditu. Orain garenak gara, iraganean halakoak izan ginelako.

Letretara joz, zertaz jardun duzu? Ikuspuntu pertsonalak azaltzen dira azalean eta letretan, baina nahiago dugu entzuleek berera egokitzea. Azken neurrian, ni guztiak dira ezberdin, berdinak dire-

lako. Abestiek galderei buruz eta Eibarko haurtzaroz berba egiten dute, besteak beste. Batez ere, nola ihes egin dezakegun zuri-beltzetik koloreetara. Hau da, guk aukeratu dezakegula ekografia margotzea.

Iraganean oihartzun indartsua laga zuen Loreleik, hainbeste



Antxon Sarasua, Mikel Gorosabel, Asier Serrano eta Loiola Madera.

urtetan isilik egon ondoren publikoak beso zabalik hartu zaituztelako. Nola bizi duzue hori?

Niretzat oso hunkigarria izan zen kontzertuak berriz ematea. Andoainen izan zen lehen kontzertua eta ez negoen urduri, shock egoe-ran baizik. Ez gatoz gazteei lekua kentzera, hori ez da gure helburua, ezta belaunaldi berriak konkistatzera ere, baina ikustea gure belaunaldiko jende hori kontzertuetara etorri zela, ez dakit gaztetzera edo nostalgia musukatzera-edo, izugarria izan zen.

Zuen musika ondo zahartu den seinale?

Orain dela 25 urte, guk ez dakit, baina Gaztelupeko Hotsakek asko arriskatu zuen. 90. hamarkadan ez zen ohikoa eta zailtasunak zeuden gure eskaintza jasotzeko. Hau da, poesia eta pop-rock musika eskaintzea, heavy eta punk eszena zegoenean. Sasoi horretan diskoen salmentek agintzen zuten eta, gure harridurarako, gureak funtzionatu zuen.

"Ez azkena, baina disko hau "behin betiko diskoa" izan zitekeela pentsatu nuen"

Ahotseneako egitaraua

Asteazkena 07

OLAIA INZIARTE 14:30-15:00



MARACA DIABLO 15:40-16:10

ZAKILL 16:50-17:20

SUA 18:00-18:30

BOLBORA 19:10-19:40

GOXUA N'SALSA 20:20-20:50



DELIRIUM TREMENS 21:30-22:00

Osteguna 08

BILAKA 11:00-11:30

PIZTIAK 12:10-12:40

INES OSINAGA 13:20-13:50

RODEO 14:30-15:00



NEOMAK 15:40-16:10

HIBAI 16:50-17:20

KURKUMA 18:00-18:30

WILLIS DRUMMOND 19:10-19:40

KRISTONAK 20:20-20:50

SUTAN 21:30-22:00

Ostirala 09

LUMI 11:00-11:30

ILARGI 12:10-12:40

AGUR 13:20-13:50

MIRUA 14:30-15:00

XSAKARA 15:40-16:10

MUGAN 16:50-17:20



KOKEIN 18:00-18:30

KEIA 19:10-19:40



MICE 20:20-20:50

EZPALAK 21:30-22:00

Larunbata 10

PASADENA 11:00-11:30

ASSATA 12:10-12:40

ASLA 13:20-13:50

KYXO 14:30-15:00

PERU GALBETE 15:40-16:10

ESTI MARKEZ 16:50-17:20

DUKKHA 19:10-19:40



BENGO 20:20-20:50



ØDEI 21:30-22:00

Igandea 11

ARIMA SOUL 11:00-11:30

FUFU 12:10-12:40

ORBEL 13:20-13:50

TXOST! 14:30-15:00

WATSON 15:40-16:10

IRTERA 16:50-17:20



MERINA GRIS 18:00-18:30

JANUS LESTER 19:10-19:40

BURUTIK 20:20-20:50

MAIRU 21:30-22:00



VII. GILDA LEHIAKETA EIBARREN

ABENDUAK



13

14

15



TABERNENTZAT
SARIAK

**HERRITARREK
AUKERATUTAKOA
150€**

TABERNETAN
BOZKATZEKO KUTXAK
ETA ORRIAK EGONGO
DIRA

1

**EPAIMAHAIAREN SARIA:
TRADIZIONALA: 150€
BERRITZAILEA: 150€**

EPAIMAHAIKIDEAK:
MIREIA ALONSO
JOSU MUGERZA
RUBEN ETXANIZ

2

BOZKETAN PARTE HARTZEN DUTEN BEZEROEN
ARTEAN ASTEBURUKO EGONALDIA ZOZKETATUKO DA
BI LAGUNENTZAT.

VII. GILDA LEHIAKETA

AGUIÑASPI
URKIZU, 22



AMETSA

T. ETXEBARRIA, 2



ARKUPE

ISASI, 2



BARATZE

BIDEBARRIETA, 39



BIRJIÑAPE BERRIA

T. ETXEBARRIA, 16



BOSSA

EGO GAIN, 7



KOSKOR

CALBETON, 6



KULTU

ZULOAGATARREN, 3



SLOW

EGO GAIN, 10



ABENDUAK

13

14

15



ASTELENA
ESTAZINO, 7

BACOLEKU EGO GAIN
EGO GAIN, 4

BACOLEKU URKIZU
URKIZU, 11



CHIC

CALBETON, 9

GURIDI

UNTZAGA, 3

KONTENT

EGO GAIN, 6



SU BEROA
BISTA EDER, 11

TRINKETE
ERREBAL, 24



Igeriketako 33. Gabon Kopa jokatu da kiroldegian abenduaren 3an

Urterokoari jarraituta, Eibar Igerixan-ek Gabon Kopa Txapelketa antolatu du eta, zapatu horretan jokatu den 33. edizioan, puzgariak, jolasak eta dominen-banaketa egongo dira. Antolatzaileek jendea animatu nahi dute egun handi hori Ipurua kiroldegian disfrutatzen.

Aurreko zapatuan motorrak ondo berotu zituzten gure herriko igerilariek, Ipuruan bertan jokatutako Neguko Probintziarteko Ligaren hirugarren jardunaldian. Federatuen mailako 10 igerilarik (sei emakumezko eta lau gizonezko) eta eskola taldeko beste zazpik (lau neska eta hiru mutil) ordezkatu zuten Eibarko taldea, guztiak ere emaitza ezin bikainagoak eskuratzeko. Federatuei dagokienez,

guztira lau proba irabazi zituzten eta zazpi aldiz bigarren sailkatu ziren, beste bostetan hirugarren geratzeko: Miren Galdos 200 bizkarrean, Maddi Maguregi 200 tximeletan, Asier Gomez 400 librean eta Iker Uribesalgo 200 estiloe-tan izan ziren irabazleak. Eskola mailako probetan eibartarrek bost proba irabazi zituzten eta beste hirtutan bigarren sailkatu: nesken erreleboetako lasterketa irabazteaz gain, Julen Canales 200 estiloetan eta 100 librean nagusitu zen eta Ibrahim Benslaimanek eta Jokin Onekak 50 bularrean eta 100 tximeletan jokatutako probak irabazi zituzten, hurrenez hurren. Irabazleengandik aparte, podiumean izan ziren Malen Beobide, Paula Calvo, Ekaitz Lago eta Igor Ruiz



federatuetan, eta Itsaso Castrillo eskolartekoetan.

Behin Gabon Kopa jokatu, hurrengo hitzordua Ipuruan bertan izango dute Eibar Igerixanekoek, abenduaren 10ean klubak antolatu duen Master mailako Gipuzkoako Txapelketarekin.

Deporrekoek hilaren 17an egingo dute urteko azken mendi-irteera

Deba Bailararen Itzuliaren 11. etaparekin amaituko ditu Eibarko Klub Deportiboko mendi-batzordeak 2022ko egutegian prestatutako medni-ibilaldiak. Aittolatik Debaraino eramango dien txangoan Lizarreta gaingituko dute eta 16.6

kilometro egin eta gero (goraka metatutako 615 metroko distantzia osatuko dute eta beheraka 1.215 metro), bazkaria izango dute, ohikoari jarraituta. Guztira 27 irteera egingo dituzte aurten, egun batekoak gehienak, baina baita luzeagoak

ere, "korrikalarientzat Kalamua Korrikalari Taldeak prestatutakoekin batera". Eta ezin dira ahaztu Mendi Jardunaldiak eta Mikologikoak. Aipatutako bazkari hori Urberu sargardotegian egingo dute eta prezioa 45 eurokoa izango da (basa tartean sartzen da). Irteera horretan parte hartu nahi duenak abenduaren 8rako eman beharko du izena: betiko lez, martitzen eta eguenetan Deporren, 19:30etik 20:30era, edo telefonoz (943201904).

Bestalde, hilaren 14an "Euskal Herriko 200 Mendi Ederrenak" aurkeztuko dituzte Deporren. 2018an 100 lehenekin egin zuten bezala, oraingoan mendizale beteranoen taldeak beste ehun batu ditu, bertara joateko informazio guztiarekin.



Elosua-Irukurutzeta-Aittola irteeran 20 lagun elkartu ziren.

Euskal Herriko txapelduna nagusi izan zen San Andres torneoan ere

Eguazten eguerdian jokaturako aizkolarien San Andres Torneoaren 18. edizioan Hodei Ezpeleta "Bihurri"-k, Zaldua lagun zuela, txapela jantzi zuen 60 ontzako zortzi enborrak 21 minutu eta 30 segundotan ebakiz. Euren atzetik sailkatu zen Basozelaik eta Etxeberriak osatutako bikotea (22:10) eta hirugarren postuan geratu ziren Rekondo eta Suharri Rodriguez (23:14). Beteranoen mailan jokaturako lehian, bestalde, oraingoan Ernesto Ezpeleta "Bihurri" k amore eman behar izan zuen eta berak eta Mujikak osatutako bikoteak 22 minutu eta 15 segundo behar izan zituen 80 ontzako lau enbor mozteko, Txapartegi-Beltza bikoteak 21:45ean mozten zuen bitartean.



Bihurrik bigarrenez irabazi zuen txapela.

Euskal Herriko txapeldun

Aurreko domekan Bilboko Bizkaia frontoian jokaturako finalean, Hodei Ezpeleta eibartarrak 47 minutu eta 42 segundo behar izan zituen lau kanaerdiko, lau 60 ontzako eta

lau inbiko enborrak mozteko. 23 urteko aizkolaria minutua eta 35 segundo atera zizkion bigarren izan zen Xabier Zalduari (49:17). Jokin Urretabizkaia 'Basozabal' izan zen hirugarren, lanak amaitzen 53 minutu eta 53 segundoko denbora eginez. Hasieratik jarri zen probaren buruan Hodei Ezpeleta 'Bihurri' eta azken bi enborretara minutu bat eta 27 segundoko abantailarekin iritsi zen, maila bikainean jardun eta garaipenari ondo eusteko. Joxan Etxeberria (56:07) izan zen laugarren. Bosgarren postuan amaitu zuen Luis Mari Txapartegik (58:40) eta seigarren Iban Fresneda izan zen (60:44). Euskal Herriko Txapelketako aurreneko bostak Sanandrese-tan Eibarren izan genituen.

Eibar Rugby Cisnerosi irabazi zion Unben, jai-giroari ginga jarriz



Seigarrenean txanpona eibartarren alde erori zen eta, azken uneetan izan bazen ere, Guntinek zuzentzen duen taldeak merezi zuen garaipena eskuratu zuen domekan Unben jokaturako partiduan Complutense Cisneros Madrilgo taldeari 29-24 irabazita. Atsedenaldira eibartarrak markagailuan aurretik zirela (12-10) erretiratu ziren, eta partidua azken segundotan Aumuaren en-tsegu batek eta Copeland-ek gauzaturako transformazioak garaipena etxean lagatzea ahalbidetu zuten.

Gabonetako Rugby Camp

Aurten, Gabonetan ere entrenatzeko, Eibar Rugby Taldeak udaleku berezia antolatu du, Rugby Camp izenekoa. Urtarrilaren 2tik 5era egingo dute, goizeko 09:00etatik eguerdiko 14:00ak arte, eta 2009 eta 2014 urte bitarte horretan jaiotakoentzat izango da. Antolatzaileek diotenez, errugbiko trebetasunak garatzeaz aparte, "ingelese ere hobetuko dute, jarduerak nazioarteko entrenatzaileek prestatuko baitituzte". Prezioa 40 euro da.



ZU NON, HAN DA!
57. DURANGOKO AZOKA

LIBURU AURKEZPENAK

Abenduak 14. 17:00
Elena Olave. "Keinura itzuli". Adarabar

Abenduak 21. 17:00
Eider Perez. "Kirtsa". Adarabar








Banatu dira San Andres Bertso Paper lehiaketako sariak

Aurreko asteko eguenean egin zen Coliseo antzokian San Andres Bertso Jaialdia, ...eta kitto! Euskara Elkartearen eskutik. XXVII. ediziora iritsi den jaialdian Miren Artetxe, Eñaut Martikorena, Onintza Enbeita eta Jexux Mari Irazu bertsolariek jardun zuten Jon Mikel Mujika gai-jartzailearen esanetara, baina aurretik aurtengo San Andres Bertso Paper lehiaketako irabazleei sariak banatu zizkien Ekaitz Juaristi ...eta kitto! Euskara Elkarteko presidenteak eta saritutako bertsoak kantatu zituzten. Edizio honetan, helduen mailan Euskal Herri osoko hamalau lan jaso dira eta, lehen aldiz, egile bakarrak eraman ditu bi sariak, lehiaketara aurkeztutako bi bertso-sortarekin: Ekaitz Goikoetxea beasaindarra izan da irabazlea. Eta Eibarko ikasleen mailan, berriz, Iزارo Urkiaga izan da irabazlea eta Ibai Zubizarretak bereganatu du bigarren saria. Juan Antonio Mogel Ikastolako ikasleak dira biak.



Zapatu goiz ederra pasa zuten Sosolan familia berbalagunek

Eguraldia lagun Sosola baserrian pasatu zuten zapatu goiza Gurasoak Berbetan eta Ongietorri programetako hainbat familiek. Artzainak egin zituzten lehenengo eta behin, eta baserriko artaldeari larrrera irteten lagundu zioten. Hori egin eta gero, bi taldetan banatuta Aizpeak ogia eta Enrikek gazta nola egiten duten bertatik bertara ikusi eta ikasi zuten. Oilategia ere ezagutu zuten, eta goiza primeran amaitzeko mokadutxo gozoaz gozatu zuten, Sosola baserrian bertan egindako gazta, ogia, sagardoa eta sagar-zukua. Baserriko giroa, lana eta euskal tradizioekin lotutako hamaika kontu ikasi eta gero, pozarren itzuli ziren familiak etxera goiz zoragarria pasata. Eskerrik asko Aizpea eta Enrike!



Txikitto!ren azaroko alea kalean da

Aurreko astean banatu zen Eibarko ikastetxeetan Txikitto! aldizkariaren 211. alea, ikasturteko bigarrena. Amaña herri-ikastetxeko ikasleek sare sozialen inguruan egindako inkestaren berri ematen dute; Aldatzeko Aritzek osaba Iñigo elkarrizketatu du; eskulanean atalak aho zabalik uzteko moduko esperimendua eskaintzen du eta, horrez gainera,

azkeneko asteotan eskoletan egin dituzten ekintzak, ipuina, txistek eta denborapasak ere biltzen ditu Txikitto!-ren ale berri honek.

Amañako eskolan egindako bideoa ikusteko



“Euskararen eguneko muralaren lanketa oso esperientzia aberasgarria izan da, zerbait berria”

MIKEL REMAK • Arkitektoa eta artista plastikoa



Bihar Euskararen Eguna ospatuko dugu herrian eta egun osoko egitaraua prestatu dute horretarako. Hasteko, 09:00etatik aurrera, herritarrek horma-irudia margotzeko aukera izango dute Bista Eder kalean, Beleko tabernaren alboan, eta 12:00etan amaituko dute margoketa-lana, sorpresa batekin.

Marraskia Eibar BHI-ko Batxilergo Artistiko ikasleek diseinatu dute eta Mikel Remak artista plastiko bergararraren laguntza eta aholkularitza izan dute horretarako. Mikelek hainbat mural margotu ditu han eta hemengo hormetan eta esperientzia berria izan da hau berarentzat.

Zer prestatu duzue Euskararen Egunerako?

Arte Batxilergoko ikasleek diseinua egin dute, nik parretaren ezaugarrietara moldatu dut eta horma-irudia eibartarrek margotuko dute. Jarduera irekia izango da. Nik dinamizatzaile lanak egin ditut batipat, ez da nik guztiz landutako obra bat izango.

Herritarrei margoketa nola egin esango diezue ala libre izango da?

Hori prest edukiko dugu eta txukun egin dezaten saiatuko gara. Gero, sorpresa bat egongo da amaieran, murala margotzen den bitartean ikusiko ez dena baina azkenean ikusiko dena. Horretarako, guk fondoa egingo dugu, zinta eta paperen bitartez sorpresa hori

erreserbatu egingo dugu moduren baten, herritarrek margotu egingo dute eta zinta eta paperak kentzean ikusiko da zer den.

Prestaketa nolakoa izan da?

Lehenik, Batxilergoko ikasleak ezagutu nituen eta muralgintzaren inguruko teoria azaldu nien pixka bat. Gero, hurrengo klasean horma honetarako tipografia diseinatu genuen.

Margotzeko orduan, horma egokitzen duzue edo zuek egokitzen zarete hormara?

Normalean gu egokitzen gara hormara, baina horma batzuek beste behar batzuk dituzte. Bista Eder kaleko horma horrek, adibidez, hezetasun asko du. Egokiena izango litzateke beste akabera bat duen horma batean margotzea, baina dagoenarekin ahalik eta ondoen egiten saiatuko gara.

Batxilergoko ikasleek nola hartu dute elkarlana egiteko aukera?

Batzuk beste batzuek baino ilusio gehiagorekin (barrreak). Eurei esan nien bezala, horrelako diseinu bat egiteko lau ordu egon naiteke normalean, baina



eurekin ordubete besterik ezin izan nintzen egon. Orduan, ezin izan dute prozesu guztia ondo ikusi diseinua eduki arte. Dena dela, ikasle batzuk oso motibatuta zeuden. Niretzat, adibidez, oso esperientzia aberasgarria izan da, zerbait berria.

Zelan hasi zinen muralak margotzen? Imajinatzen dut zure sasoiaren ez zela inor eskolara joan muralak nola egin erakustera.

Graffitiak egiten hasi ginen eta gero, nahiko azkar, marrazki figuratiboak egitera pasa ginen. Oso sasoi ezberdina zen. Lehen ez zegoen hainbeste muralismo eta polikiago ikasten joan ginen.

Ikasi ere, zuen kabuz ikasi zenuten?

Orain tailerrak daude, baina gure sasoiaren ez zegoen ezer. Gure kabuz ikasi genuen, beste batzuen lana ikusten. Denbora librean egiten genuen, guk bilatzen genuen modua... Beste kontu bat zen, orain demaseko industria dago.

Bazeneukaten erreferenterik?

Hasi ginenean ez zegoen hainbeste jende. Gure artean bata bestearengandik ikasten zuen, edo baten

batek esaten zuen zerbait ikusi zuela eta gauzak poliki-poliki ezagutzen gindoazen. Orain oso jende ona dago, kalitate handikoa.

Arkitektoa ere bazara. Horrek badu eraginik margotzeko ala gauza ezberdinak dira guttiz?

Gauza ezberdinak dira, baina eragiten du. Askotan, nire obra edozein tokitan ipini baino, hormaren ezauzgarriak zeintzuk diren ikusten dut eta konposaketarako laguntzen dit.

Jende batek errezeloz begiratzen die hormetan egiten diren marrazkiei. Mugak aurkitzen dituzue margotzeko orduan?

Denetarik dago. Kanean egiten duzun edozer gauzak sortzen du onespena edo kontrakoa. Horrekin bizi-tzen jakin behar duzu eta gu ohituta gaude. Kanean zauden momentuan jendearen erantzuna zuzenagoa da eta gertatu ahal diren tentsio-momentuak kudeatzen jakin behar da. Dena dela, jendearen %99ak onartzen du egiten duguna. Orain herri batzuetan ohikoa da muralak ikustea eta jaialdiak egiten dira han eta hemen.



“Eskatu eskaini euskaraz” kanpaina abiatzear da

Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak merkataritzan euskara sustatzeko kanpaina aurkeztuko du domekan. “Eskatu eskaini euskaraz” kanpainarekin tokian tokiko merkataritzan euskararen erabilera sustatu eta dendari, tabernari eta bezero euskaldunak aktibatzea nahi dute. Ekimena hainbat eragilerekin elkarlanean bideratu da eta EAEko udal askok, tartean Eibarkoak, egin dute bat proiektuarekin. Gurean Eibar Merkataritza Gune Irekia, Eibarko Dendari Elkarteak, San Andres Ostalarien Elkarteak, Gipuzkoa Merkataria eta ...eta kitto! Euskara Elkarteak arikuntza Udalarekin batera.

Kanpaina horrek, baina, ez luke zentzurik izango merkataritza, ostalari eta herritarren parte hartzerik gabe. Beraz, lerro hauek aprobetxatu nahi dituzte sustatzaileek ekimen hau arrakastatsua izan dadin, norberak bere lanean zein bezero moduan ahal duen guztietan eta guztiekien euskaraz egitera eta bertako establezimenduetan erostera animatzeko.

Algaraklown-en egutegiak salgai

Algaraklown Ospitaleko Pailazoak irabazi asmorik gabeko elkarteak 2023rako egutegia kaleratu du. Eibarraren Untzagako dorrearen azpian dagoen txinatar dendan, Urkizuko Ilargi dendan eta Amañako Txema elikagai dendan ipini dituzte salgai egutegiak, 10 eurotan.




Juan San Martinen omenezko erakusketara bisita gidatua

Juan San Martin Eibarko seme kutunaren irudia omenendu nahi izan du bere izena duen Eibarko Udal Liburutegiak bere jaiotzaren mendeurrenean eta, horretarako, erakusketara orogarria prestatu du: bere biografiaren data garrantzitsuak, bere autodidakta ikaskuntza, euskaltzain izatera eramanez euskararekiko maitasuna, Eibarko Klub Deportiboan izan zuen partaidetza, sortu zuen lan oparoa, bere ibilbidean zehar lortutako sariak... Abenduaren 12tik 16ra, DBH eta Batxilergoko ikasleen bisita gidatuak egingo dituzte (interesa dutenek 943 70 84 37 telefonora deitu dezakete). Baina, hortik kanpora ere, 16 urtetik gorako edozeinek interesa izanez gero, Nerea Alustiza historialariaren eskutik erakusketan bisita gidatua egiteko aukera dago abenduaren 12an, Udalaren webgunean eskuragarri dagoen eskaera-orria betez gero. Bestalde, abenduaren 14an, 19:00etan, “Juan San Martin: 100 urte, puntu eta jarrai” izenburuko hitzaldia emango dute Oier San Martin semeak eta Iñaki Osoro Klub Deportiboko presidentek.

Exfiar seilu-erakusketa

Domekara arte Portalean ikus daitekeen Exfiar 2022 LIII. Seilu erakusketaren harira, Arrate Filatelia Elkarteak bi zigilu-marka berezi argitaratu ditu. Bata, Fidel Saez Aguinagari eskainia, herrian filatelia zabaltzeko lan handia egin zuelako; eta bestea, San Andres parrokiako organoaren mendeurrena ospatzeko. Erakusketara ordutegi berezian zabalduko dute, gaur 18:00etatik 20:00etara eta bihar eta etzi, berriz, 11:30etik 13:30era eta 18:00etatik 20:00etara.





Munduko itsaspeko irudirik onenak Eibarren ikusgai

Eibarko Klub Deportiboko Urpekaritza taldeak Nazioarteko Itsaspeko Zinema Zikloa eta argazki-erakusketa antolatu ditu aurrean. San Andres bezperan zabaldu zuten Arrate Kultur Elkartearen Topalekuan aurtengo CIMASUB-era aurkeztutako argazki onenen erakusketa, “mundu osoko itsaspe ezberdinetan bizi diren espezie harrigarri eta erakargarrienak modu bitxietan ikustera garraiatuko gaituzten 24 argazkirekin”. Abenduaren 18ra arte egongo da ikusteko moduan. Eta, aldi berean, atzotik geroztik Deportiboko Urpekaritza taldekoek egindako argazkien erakusketa ikus daiteke Eibako Klub Deportiboan.

Horrekin batera, 21. Eibarko Itsaspeko Zinemaren Nazioarteko Zikloaren baitan, abenduaren 14, 15 eta 16an itsaspeko zinemako lanen emanaldiak eskainiko dituzte Coliseo antzokian, 19:00etatik 20:30era. Eta abenduaren 17an, 12:00etatik 13:00era, familientzat bereziki pentsatutako Txikiziklo saioa egingo da Coliseo antzokian. Emanaldi guztiak doan dira.



Familia osoarentzat moduko ikuskizun musikala

Teatro Che y Moche taldeak “Las 4 estaciones... ya no son lo que eran” publiko guztientzat ikuskizuna eskainiko du bihar, 18:00etan, Coliseo antzokian. Sei musikari-aktore apartek ematen duten kontzertu “itzel” hau Vivaldiren “Lau urtarok” lanetik abiatzen da eta familia osoarentzako istorio zoro, dibertigarri eta parte-hartzaile batean murgilduko du publikoa. Sarrerak 10 euro balio du (7 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin).

Escamot català Elgetan

Herrixa Dantzan saio berezia egingo da abenduaren 9an Elgetako kafe antzokian: 19:00etan hasiko da dantzaldia (Escamot català), 21:00etan afaria eta 22:00etan dantza elkartrukea (Patxi Montero eta Escamot català). Sarrera doan da.



688 62 76 89
ESKERTZAK ETA URTEURRENAK
 943 20 09 18

Urkizu, 11
 publizitatea@etakitto.eus

FUNEUSKADI
 Grupo Antea

FUNERARIA MUGICA
 Funerariak

TANATORIO EIBAR

TANATORIO FUNERARIO ELGOIBAR

24 orduko zerbitzu iraunkorra T. 943 201 951
www.funeuskadi.com

Eibar: Otaola, 27	Elgoibar: Xaillon, s/n. SIGMA Industrialdea (Olasoko hilerriaren ondoan)
Eibarko bulegoa: Iñdabarrieta, 20	Ernauskako bulegoa: Marqués de Valdespina, 16

Eibar · Elgoibar · Ernaus · Bilbo · Barakaldo · Leioa · Getxo · Sestao
 Portugalete · Santurtzi · Basauri · Galdakao

ZERTXOBAIT ERRAZAGOA

5			6				7	
6				2	4		3	
					3	6	4	8
1					5			
8								9
			1					7
2	9	8	3					
	5		4	1				3
	4				7			5

5	6	7	8	9	1	2	3	4
6	7	8	9	1	2	3	4	5
7	8	9	1	2	3	4	5	6
8	9	1	2	3	4	5	6	7
9	1	2	3	4	5	6	7	8
1	2	3	4	5	6	7	8	9
2	3	4	5	6	7	8	9	1
3	4	5	6	7	8	9	1	2
4	5	6	7	8	9	1	2	3
5	6	7	8	9	1	2	3	4

soluzioa

S U D O K U

ZERTXOBAIT ZAILAGOA

4	7			5	8		
	1		6				5
			4	2			7
		2					1
8							3
	5				7		
	9			7	1		
6				8			2
		1	5			9	8


soluzioa

8	5	9	6	1	1	2	
7	2	6	8	9	8		
6	8	1	7	2	8	6	1
2	8	9	6	7	5	1	
1	2	6	7	8	9	8	
8	5	9	6	1	1	2	
7	2	6	8	9	8		
6	8	1	7	2	8	6	1
2	8	9	6	7	5	1	
1	2	6	7	8	9	8	

**AURKITU 8
EZBERDINTASUNAK**



**L
A
B
I
R
I
N
T
O
A**



Abenduak 2/15

BARIXAKUA 2

EUSKARAREN EGUNA

18:00 Euskararen erabilera datuen aurkezpena. Errebal Plaza (bilera gela).
19:30 Karropoteoa..

ZINE-FORUMA

18:30/20:00 "Las niñas" (Pilar Palomero).
Dinamizatzailea: Izaskun Rodríguez Elkoro. Jarduera irekia eta doakoa. Portalea (areto nagusia).

ZAPATUA 3

EUSKARAREN EGUNA

09:00/11:45 Horma-irudiaren margoketa, herritar guztiei zabalik. Bista Eder.
11:00/12:00 Umeendako jolasak. Untzaga (karpan).
11:45/12:00 Horma-irudiaren making-off eta sorpresa. Untzaga (karpan).
12:00 Kalejira Ustekabe taldearekin.
14:15 Herritarren talde argazkia. Untzaga.
15:00 Herri bazkaria, ekitaldia eta bazkaloste musikatua. Untzaga (karpan).
21:00 Erromeria. Untzaga (karpan).

KIROLA FAMILIAN

17:30/19:30 2-5 urte bitarteko haurrek eta beren familiek elkarrekin jolasteko gunea. Ipurua kiroldegia.

ANTZERKIA

18:00 "Las cuatro estaciones... ya no son lo que eran" (Teatro Che y Moche). Coliseo.

DOMEKA 4

KIROLA FAMILIAN

17:30/19:30 2-5 urte bitarteko haurrek eta beren familiek elkarrekin jolasteko gunea. Ipurua kiroldegia.

PATINAK IPURUAN

17:45/19:45 Patinatzeraz joateko aukera. Ipurua kiroldegia.

MARTITZENA 6

MANIFESTAZIOA

12:30 "Konstituzioari sua!" (Ernai Eibar). Untzagatik.

ZAPATUA 10

KIROLA FAMILIAN

17:30/19:30 2-5 urte bitarteko haurrek eta beren familiek elkarrekin jolasteko gunea. Ipurua kiroldegia.

DOMEKA 11

KIROLA FAMILIAN

17:30/19:30 2-5 urte bitarteko haurrek eta beren familiek elkarrekin jolasteko gunea. Ipurua kiroldegia.

PATINAK IPURUAN

17:45/19:45 Patinatzeraz joateko aukera. Ipurua kiroldegia.

ASTELEHENA 12

TAILERRA

17:00/18:30 "La soledad no deseada: reflexiones sobre una realidad invisible" (Adindu). Ipuruako jubilatutako etxea..

BISITA GIDATUA

19:00 "Juan San Martin 1922-2022" erakusketara bisita, Nerea Alustizarekin. Liburutegia.

EGUAZTENA 14

TAILERRA

11:00/12:30 "La soledad no deseada: reflexiones sobre una realidad invisible" (Adindu). Untzagako jubilatutako etxea.

TAILERRA

18:00/19:30 "La soledad no deseada: reflexiones sobre una realidad invisible" (Adindu). Untzagako jubilatutako etxea.

HITZALDIA

19:00 Juan San Martin: 100 urte, puntu eta jarrai". Hizlariak: Oier San Martin eta Iñaki Osoro. Liburutegia.

ITSASPEKO ZINEMA

19:00/20:30 "Itsaspeko Zinemaren Nazioarteko Zikloa". Doan. Coliseo.



EGUENA 15

ITSASPEKO ZINEMA

19:00/20:30 "Itsaspeko Zinemaren Nazioarteko Zikloa". Doan. Coliseo.

ERAKUSKETAK

Abenduaren 4ra arte:

- **J.D. ARRATE foball taldeari eskainita (Peña Manix)**. (Untzagako jubilatutako etxea).
- **EXFIBAR 2022-LII. Seilu erakusketa**. (Portalea).

Abenduaren 11ra arte:

- **"EIBAR ORGANOSZ BLAI"**. (Armagintzaren Museoa).

Abenduaren 18ra arte:

- **JUAN SAN MARTINEN omenezkoa**. (Eibarko Liburutegia).
- **CIMASUB-era aurkeztutako argazki onenak**. (Topalekua).
- **Klub Deportiboko URPEKARITZA TALDEkoen argazkiak**. (Klub Deportiboa).

Martxoaren 19ra arte:

- **FILMETAKO ARMAK. MUSEOAREN BILDUMA ZINEMAN**" (Museoa).

Eskualdeko Agenda

ERMUA

ANTZERKIA

2an (barixakua)

Ermua Antzokia / 20:30
"Boeing Boeing". Andoni Ferreño eta Agustin Bravo.

DEBA

KONTZERTUA

2an (barixakua)

Kiroldegia / 22:00

Benito Lertxundi.

SORALUZE

KONTZERTUA

4an (domeka)

Gaztelupe taberna / 13:00

Andoni Tolosa "Morau" & Bernardo Goietxe

ZINEA COLISEO

1 ARETOA

- **3an:** 22:30
- **4an:** 17:00, 20:00
- **5ean:** 20:30

"Asbestas"

Zuzendaria: Rodrigo Sorogoyen




THRILLER. Nekazal munduan girotutako drama. Galiziara joandako Frantziako bikote baten eta bertakoen artean.

2 ARETOA

- **3an:** 17:00, 19:45, 22:30
- **4an:** 17:00, 20:00
- **5ean:** 20:30

"La mujerrey"

Zuzendaria: Gina Prince



DRAMA. Esklabotasun eta kolonialismoaren ingurukoa, emakumeak protagonista direla. XIX. mendeko Afrika..

ANTZOKIA

- **3an:** 17:00 (1), 19:45, 22:30
- **4an:** 17:00, 20:00
- **5ean:** 20:30

"A todo tren 2"

Zuzendaria: Ines de León



KOMEDIA. Ume batzuen eta euren gurasoen gorabeherak kanpamentu baterako tren bidaia batean gertatutakoak.





**Juan Luis
Ulazia Landa**
11. URTEURRENA
2011/09/25





**Maria Luz
Landa Mendikute**
1. URTEURRENA
2021/12/02

"Beti egongo zarete gure bihotzetan"
- ETXEKOAK -

688 62 76 89
publizitatea@etakitto.eus



Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da **...eta kitto!**-n. Zorion-agurrak **etakitto.eus** webgunean ere argitaratzeko aukera daukatzue.



Zorionak, **MADDI**, gure neska politta. Domekan 10 urte beteko dozuz-eta. Ondo pasa eguna eta patxo asko famelixa guztiaren partez.



Zorionak, **TXOMIN**txo!!! Gaur 4 urte egin dozuz, mutil haundi!!! Musu bat Pello eta Elixeren partez.



Zorionak, **AINHOA**, domekan 13 urte beteko dozuz-eta. Musu haundi bat etxeko guztien partez.



Zorionak, **MARKEL**, mutil haundi!!! 4 urtetxo betetzen dozuz gaur! Patxo haundi bat famelixa guztiaren eta, batez be, zure arreba Nilen partez!



Zorionak zure 9. urtebetetzian. Segi, **JONE**, sorgin ederra izaten. Patxo potolua famelixa guztiaren partez.



Zorionak, **BIHOTZ**, hillaren 7xan 6 urte beteko dozuz-eta. Musu haundi bat etxekuen eta, batez be, Amets eta Hodeiren partez.



Zorionak, **GAIZKA**, hillaren 9xan 13 urte egingo dozuzelako. Famelixa guztiaren eta, batez be, Alaitz eta Noaren partez.



Zorionak, **KONTXA** Laspiur Zabala, San Andres egunian 98 urte bete zenduaz-en-eta. Musu bat eta besarkada haundixa Mirtaren partez.



Zorionak, **MALEN!** Gaur 5 urte betetzen dozuz-eta. Segi horren alai! Egun bikiña pasau eta musu asko famelixa guztiaren eta, batez be, Snowy-ren partez.

Lourdes Magunazelaia Gonzalez de Audikana

4. URTEURRENA
2018/12/03

"Lagun on bat aurkitzea oso zaila da, galtzea hainbat zailagoa, eta ahaztea ezinezkoa"

- ZURE LAGUNAK -

Nicolas Zurutuza Otxandorena

2. URTEURRENA
2020/11/29

"Gure bihotzean betirako eramango zaitugu"

- ETXEKOAK -

Iragarki laburrak



688 62 76 89
publizitatea@etakitto.eus

Atal honetako iragarkiak doan dira, etheen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK, beti ere 4 ASTERAKO, honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. Iragarki guztiak etakitto.eus webgunean ere argitaratuko dira.

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

3. LOKALAK

3.1. Salgai

- Garajea salgai Bittor Sarasqueta kalean. Itxita. 639728126.

3.2. Errentan

- Lokala alokagai erdigunetik gertu. Negozio zein gazteentzat (baimen guztiekin), 634430647.

4. LANA

4.1. Lan bila

- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. 612583671.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. 632029884.
- Gizonezkoa eskaintzen da garbiketarako egiteko, nagusiak zaintzeko eta lorategian jarduteko. Gidatzeko karnetarekin. 624127147.
- Emakumea eskaintzen da astegunetan garbiketarako egiteko. Orduka. 691421135.
- Emakumea eskaintzen da asteburuetan taberna edo jatetxeetan lan egiteko eta nagusiak zaintzeko. 632419944.
- Emakume euskalduna eskaintzen da goizez umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. 687114707.
- Emakumea eskaintzen da umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. 637222318.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko, kamarera jarduteko eta garbiketarako egiteko. 624869718.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko, kamarera jarduteko eta garbiketarako egiteko. 631750397.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. 631341616.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. 624579899.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko (ikastaroarekin) eta garbiketarako egiteko. Orduka. Esperientziarekin. 632415374.
- Gizonezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientzia eta erreferentziak. 610067042.
- Emakumea eskaintzen da umeak zaintzeko. Orduzgi zabala. 625200924.
- Emakumea eskaintzen da umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Orduka. 643933039.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. 631363908.

4.2. Langile bila

- Kamarera/o behar da. 6888667169.
- Taxi-lizentzia traspasatzen da. Autoa Eibarren du. 606848794.

5. IRAKASKUNTZA

5.1. Eskaerak

- Fabrikazio Mekanikoko Diseinu klase partikularrak ematen dituenbaten bila nabil. 616479840..

5.2. Eskaintzak

- Matematika, Fisika eta Kimika klase partikularrak ematen dira: LH, DBH, Batxilergo eta Selektibitatea prestatzeko. Gehienez lau laguneko taldeak. Urteetako esperientzia. 615705945. Iratxe.
- DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika... klaseak ematen dira. Banakako edo 2-3 ikasleko klaseak. Goizez ikasteko aukera. 677592509. Alberto.

6. DENETARIK

6.1. Salgai

- Kawai pianoa salgai. Aulkia opari. Prezioa adosteko. 667549101.



osasun gida

Okulistikak



Recalde

Clinica Oftalmológica
Oftalmologi Klinika

- Kataraten eta presbiziaren kirurgian espezialistak.

R.P.S. 204613



Plaza Barria 2, 2º. Tel.: 943 201 844
www.clinicarecalde.com

Podologoak

ELENA AIZPUN
PODOLOGOIA

R38200124
kolegiatu zenbakia



T. Etxebarria, 5 - 1. A
943 12 14 93 / 696 555 208

Psikologoak



IRIGO UNANUE ARTECHE
www.irigounanue.com


- Merkataritza Taldeetako Aholkulari Sistemikoa
- Gestalt Terapeuta / Coach Ontologikoa
- Bokazio Orientatzailea

Urkizu Pasealekua, 7
472 682 131
info@irigounanue.com

Psikologia klinika eta
Psikoterapia zentroa



Oscar Mondragon Lili
GOZIEZ ETA ARRATSALEDIZ
Urkizu, 13 - beheak
tel. 943206823 / 686859023



BIDEBARRIETA, 48
EIBAR
943 203050

ERDIKO KALE 54
ARRASATE
943 799746

PODOLOGOIA
Erdiko klinika


Nerea Arregi (123 Kolegiatu zbkia.)
Rosarito Rodriguez (125 Kolegiatu zbkia.)
Amagoia Zubizarreta (122 Kolegiatu zbkia.)



PSIKOTERAPIA ZENTRUA

**HAUR, NERABE ETA
HELDUENTZAKO
PSIKOTERAPIA**

943 20 22 66
Bidebarrieta, 27-B, 1º 3 atea
www.arratepsicoterapia.com



PODOLOGOIA

Maidier Lopez Etxebarria

Arragueta 2 Bis-B, Behea B
Tfnoa. 943 82 04 88

65 Kolegiatu zbkia.



943-206776

abenduaren 3an, zapatua

EUSKARAREN EGUNA 2022

**09:00-11:45: Horma-irudia margotu
(Bista Eder kalean)**

**11:00-12:00: Umeentzat jolasak
(Untzagako karpan)**

12:00: Kalejira Ustekabe txarangarekin

14:15: Talde-argazkia (Untzagan)

**15:00: Herri-bazkaria eta bazkaloste
musikatua (Untzagako karpan)**

21:30: Erromeria

Eibarko euskalgintza